

...eta kitto!

742 zkia. 2010-XI-26

ASTEKARIA

TOKIKOM



**Bizitza osoa
lapiko ARTEan**




HORMAN
ERAIKUNTZAK

www.horman.es

33000 Juan, 11 - 41010 Eibar
Tel: 943 820407 - Fax: 943 820724

erreformak - proiektuak - etxebizitzak - fatxadak - teilatuak





Irribarreak
gaztetu egiten gaitu



Inplante eta
Hortz-Estetikan
adituak

Bista Eder Hortz Klinika
Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-
943 70 00 82 / 943 20 84 75



Isasi 20 - behea
eibarbus@eibarbus.com
www.eibarbus.com

Bulegoa: 943 20 17 33
Garajea: 943 17 34 99
Mobila: 629 48 15 92
Faxa: 943 70 16 20

- Bertoko eta nazioarteko BIDAIAK
- Enpresa eta eskola GARRAIOAK
- TXANGOAK

EIBARBUS
autobusak

**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuareta

20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Adrian Alvarez

Maider Aranberri

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Maialen Belaustegi

eta S. Hernandez

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:

Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

8.000 ale

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHTA:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldiakarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

GORTI.- Gorra, gorraizea daukana. "Gortixa baiña berorri komeni jakonian".**GOSE-PASAUA.-** Gosea dagoenean, garaiz ez jateagatik izaten den makalaldia, gogorik eza. "Eibarren gose-pasaua txarra da esaten bada, Plaentzian, esanahixa aldatu eta, gose pasaua ona da, jan da gero, esaten dabe".**GOSIAK PASAU.-** Goseak hilda egon. "Gosiak pasaua nago berbia amatau jatala".

ESKUTITZAK

ROBERTO, ESPE ETA JOKIN: GOGOAN ZAITUZTEGU

Espe Arana eta Jokin Etxeberria eibartarrak Caracasen, Venezuelan, bizi ziren. 1980ko azaroaren 14an Estatu espainiarraren soldatapeko mertzenarioek bere etxean ametrailatuz erahil zituzten arte. Garai hartan terrorismo parapolizialak "Batallón Vasco Español" siglak erabiltzen zituen eta, ordukoan, Atlantiko itsasoa zeharkatu zuten abertzaleen ehizan.

Hamar urte lehenago, 1970ko azaroaren 4an, Roberto Perez Jauregi eibartarra guardia zibilak tirokatu zuen manifestaldi bat desegin ondorengo istiluetan. Lau egun geroago hil zen. Frankismoa azken hatsak ematen ari zen garai hartan badira, Robertorena bezala, 100dik gora erahilketa argitu gabe jarraitzen dutenak, inolako errekonozimendu ofizialik jaso ez dutenak. Larogeiko hamarkadan ere, "demokraziaren" haserako garaietan, Espe eta Jokinekin batera euskaldun mordoa erahil zuten BVE, Triple A, GAL eta beste sigla batzuen pean aritzen zirenak. Atentatu gehienak argitu gabe daude; gure herrikideenak bezala.

Inpunitate osoz hil zituzten. Eta euren oroimena ezabatu nahi duten horiek, benetako bakearen etsai diren horiek, berriro egingo dute, beharra ikusten badute. Ez dezagun ahaztu. Haien heriotzak eta haien biziak ahaztu ditzagun nahi dute, errepresioa erabiliz. Edo, are okerrago, haien senideak torturatuzaileen senideekin nahastu nahi dituzte, kontzientzia zuritzeko antolatutako ekitaldi onartezinetan. Baina herriaren memoria ezabatzea ez da hain erraza. Badakigu zergatik hil ziren eta badakigu nor hil zituen.

Hortaz, Gudari Egunean urtero omentzen ditugun bezala, euren erahilketen 30. eta 40. urteurrena iritsi den honetan, Roberto Perezen omenez egingo diren ekitaldiekin bat egiten dugu eta herritarrak bertan parte hartzera deialdia egin nahi dugu lerro hauen birtatez. Besteak beste, Untzagan eta Karmengo eliza parean izango direnetan.

EIBARKO EZKER ABERTZALEA

UDALEAN EZ DIDATE KONPONBIDERIK EMAN

Barrena 36an bizi naiz eta aspalditik daukagun arazo baten berri eman nahi dut hemen. Gure etxe pareko tailerlean, lehen Rafael Lapeyra egon zen lekuan, teilatuan ura zegoen. Baina udan ura lurrundu eta bertan zeuden arrainak hil eta usteldu egin ziren. Dena eltxoz bete zen eta kiratsa jasangaitza zen. Leioak zabaldu ezinda egon gara

orain arte, berriz ere euria egin eta temperatura jaisten hasi dan arte.

Birritan joan naiz Udaletxera nere ardura azaltzera, baina ez didate konponbiderik eman. Jabiarri edo Udalarri zerbait egitea eskatuko nieke.

JUAN SAN ROMAN*asteko***HEMEROTEKA***esaldiak*

"Pertsona batek gaur egun orain dela 35 urte baino ia hiru aldiz gehiago produzitzen du. Gero eta produktibitate gehiago, lan-orduak jaistea da zuzenena. Astean 35 orduja jaistea ondo egongo litzateke, modu horretan jende gehiagok egin baitezake lan eta Seguritate Sozialera kotizatu. 40 orduko lan-asteekin amaitu behar da, gehiegi produzitzen delako. Norvegian 34 ordu egiten dituzte astero eta oso ondo bizi dira: sozialistak izan barik, badakite administratzen"

(Alejandro Teitelbaum, abokatu eta "Kapitalismoaren amadura"-ren egilea)

"Alemanian zerga asko ordaintzen dituzu, baina ongi-zatea finantzaten dute. Aldi berean, ama ezkongabe-ei Estatuak aurrez kobratzen zuten ia soldata bera ordaintzen dizkie hiru urtetan; eta gero enpresa behartzen dute aurreko egoera bereberetan kontratatuz. Hori bai, hemen aurkitzen ditudan espainiarrak kexatu besterik ez dira egiten; ez dute inolako ahaleginik egiten integratzeko. Batzuk, Alemanian zortzi urte emanda ere, alemaniera lardaskatuz ez dira iristen"

(Laura Fernández, Santanderreko unibertsitariora Alemanian)

**EIBARKO UDALA****GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA****EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO****KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)****Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldiakaria**

...eta Euskara E Gabon KATAI

KATEA:
10,60 euro

ZINTZILIKARIOA:
16,50 euro

SOKADUN
ESKUMUTURREKOA:
7,50 euro

KAUTXOZKO
ESKUMUTURREKOA:
37,75 euro

KATEA:
10,60 euro

ZINTZILIKARIOA:
30 euro

BELARRITAKOAK:
25 euro

KAMISETA BERTSOLARI BELTZA (MUTILA):
19 euro

KAMISETA BERTSOLARI LILA (NESKA):
22 euro

KAMISETA BERTSOLARI MOREA (MUTILA):
19 euro

AMANTALA (LAUKIAK):
T: 1, 2, 3, 4
32 euro

AMANTALA (OTSOA):
T: 1, 2, 3, 4
29,50 euro



ARGAZKI MARKOA:
8 euro

ARGAZKI MARKO HIRUKOITZA:
12 euro

ARGAZKI ALBUMA: 12 euro

HELBIDE-LIBURUA:
8 euro

OHARRAK:
8 euro

Etorri Olentzerori zerrenda egiten laguntzera. Egunero, ...eta kitto! Euskara E
Datorren ASTELEHENETIK aurrera, 10.00etatik 13.00etara /

IKUSI, AUKERATU eta ENKATU

kitto! Elkartearen metako KATALOGOA

Katalogoak dituen irabaziak euskera sustatzen erabiliko ditugu

AUTSONTZIA:
euro
URDINEZKO
GAHIA:
LINEKOA:
1,75 euro

TIRAGOMA:
3 euro
KARRAKA:
4,30 euro
KATILUA:
7,10 euro



ARBOLARAKO
OLENTZERO:
3,75 euro



ERRETIXINAZKO ONGI ETORRI:
6 euro





ATERAKO ALFONBRA: 12 euro

Elkartearen bulegoan (Urkizu, 11)
16.00etatik 20.00etara

ARGUA EGIN!

DISKA ETA DVDAK



eta
kitto!

Euskara Elkarte

KARRIKIRI
ARGIAK ELKARTARAKO ARGIAK



autuan

JAIXETARAKO PREBENZIÑO-KANPAINIA

San Andres jaixak dirala eta, alkoholaren konsumoaren inguruko prebenziño-kanpainia ipiñiko dau martxan Gizartekintzak: batetik "Klink ein Klonk barik" leuari jarraitzen detsan pegatiña alkarte gastronomikuetan zabalduko dabe eta, bestetik, "Bete zaitez... baina emozioz!" kanpainiari jarraituta alkoholaren eragiña sexu, adiñaren eta pisuaren arabera zelakua izan leikian azaltzen daben regletak eta alkoholimetruak be banatzeko asmua dake.

MERKATU PLAZAKUEN ZOZKETA BEREZIXA


Errebalgo merkatu plazako dendarixak bezeruen artian erosketa-txartelak banatzeko egindako azken zozketan honek izan dira irabazliak: 25 euroko txartel bana jasoko dabe Irene Fuciños, Beatriz Zabala, Begoña Aranguren, M^a Asun López, Rosa Gómez, Esteban Etxenagusia, Candela Covarrubias, Araceli Rocha, Marisa Patia, Manoli Rodríguez, Rosa Aguirreazaldegui eta Maritxu Egiuren. Abenduan, Gabonen bueltan, azken hilliotan martxan daguan kanpainia indartuko dabe eta merkatu plazan erosten daben artian 25 euroko 48 txartel eta 500 euroko beste bi txartel berezi zozketatuko dittue.

Genero indarkeriaren kontra

ATZO EMAKUMIENGANAKO INDARKERIXAREN KONTRAKO EGUNA GOGUAN IZAN ZAN eta, horren harira, eguardixan konzentraziñua egin zan Untzagan "Tratu txarretatik urten leike, salatu" esaldixa zaroian pankartia zabaldua. Arratsaldian, barriz, etxe-barruko tratu txarren eta sexu-indarkerixaren biktimeri harreta hobia eskintzeko udal protokolua presentau eta firmau eben udaletxian. Eva

Juez buru dakan Berdintasun Zerbitzuak herritarrak animau nahi dittu, buzoieta banatu daben more-koloreko puntua daroian posterra erabilli deixen. Bestalde, Berdintasun Zerbitzuak eta Andretxeak Bel-dur Barik lehiaketan parte hartu daben eibartar guztiak zoriendu nahi dittu. Euskal Herri mailan aurkeztutako 91 proiektuetatik 9 ailegaur dira bixar Bilbon jokatu dan finalera, tartian Pausoz-Pausoko eibarta-

EMAKUMIENGANAKO
INDARKERIARI EZ



NO A LA VIOLENCIA
CONTRA LAS MUJERES

rren "Sasi artean ere bada lore-rik" izenburukua. Amaia Alcobá, Leire Etxaniz, María García, Iraia Ibáñez, Miriam Merino, Olatz Ormaetxea eta Lara Porturi zorterik onena opa nahi detse bixarko ekitaldirako.

Scooter-a oparitu dabe Azittaingo gasolineran

AZITTAINGO GASOLINERAKUAK CLUB AVIA-KO ZOZKETAN MOTORRA OPARITU DETSE erretratuan pozarren agertzen dan Patxi Bergaretxeri. Euskadiko Avia gasolindegixetan txartela erabiltzarren tokau ei jako "scooter" eder hori Bergaretxeri. Totalian 25 motor banatu dittue bezeruen artia egin daben zozketan. Sarixa emoten ikusten dozuen Iñigo Errastik txartelak dittuan bentajak (gasolinan %2ko deskuentua eta dendan %5-ekua) gogoratu deskuz bide batez.



50eko kintakuen afarixa... eta loterixia




1950-IAN JAIXOTAKUAK HILLAREN 5-IAN AZITTAIÑEN AFARIXA EGIÑ EBEN eta, bapo afaldu eta afalostia be primeran pasau ondoren, oindiok dirua sobratzen jakuela aprobetxautu, Gabonetarako loterixia erosi eben antolatzailliak eta, beraz, 47.666 zenbakixarekin jokatu dabe afarira jua ziran lagun guztiak.

FRANCISCA OLABARRIA LARRAÑAGA

(2010eko azaroaren 8an hil zen, 92 urterekin)

ZU JOAN ZARA, BAINA ZUREGANAKO GURE MAITASUNA EZ. EZ DITUGU INOIZ AHAZTUKO IZAN DITUZUN ILUSIOA ETA BIZIPOZA.

Senideen izenean, eskerrik asko hileta-elizkizunera joan eta samin-agurrak bidali dizkiguzuen guztioi.





Toribio Etxebarria sarixak martxan

EGUAZTEN GOIZIAN PRESENTAU ZITTUEN UDALAK ETA BIC GIPUZKOA BERRILANEK 1990 urtian sortu zittuen Toribio Etxebarria sarixak. Aurkezpen-ekitaldixan Miguel de los Toyos alkatea, Mertxe Garate Industria eta Merkataritza ziñegotzixa eta Laura Espín BIC Gipuzkoa Berrilaneke arduraduna egon

ziran eta, eurak azaldutakuari jarraituta, "aurten be 100.000 eurotik gora" banatuko dittue saritan. Sarixeri buruzko dokumentaziñua (betebiharreko baldintzak, izen-emoteko buletziña...) www.bicberrilan.com helbidian eskuratu leike. Kandidaturak aurkezteko azken eguna 2011ko urtarrillaren 24a izango da.



Alkatia eta Eroskiko zuzendarixa denda barrixa bisitatzen. / SILBIA HERNANDEZ

Eroski barrixa inauguratuta

ASTELEHEN ILLUNTZIAN EGINDAKO EKITALDIXAN INAUGURAU EBEN OFIZIALKI IPURUAKO EROSKI BARRIXA. Merkataritza zentruan bertan, bigarren pisuan egindako ekitaldixan 200 bat gonbidatuk hartu eben parte eta Agustín Markaide Eroski taldeko zuzendari orokorrak eta Miguel de los Toyos alkatiak berba egiñ eta zinttia ebagi ostian, denda bertatik bertara

ezagutzeko aukeria izan eban jendiak. Eroski barrixak azalera haundixagua izateko biharrrak 18 hillebeteko iraupena euki dabe eta horrerri esker hipermekauak salmentarako 6.700 metroko azalera daka oin (lehengo azalera 2.800 metrokoa zan). Aparkatzeko toki gehixago be badagoz eta, Eroski ez eze, beste denda eta zerbitzu batzuk gehittu detse eskintzari.

anzorik anzo



Ospittala Ipuruan egitteko proposau dabe EA-kuak

Eguaztenian EA alderdiko ordezkariak Eibarren jasotzekua dan ospittal barrixa egitteko tokirik aproposena Ipuruako komentuak hartzen daben terrenua dala emon eben aditzerra. Juan Luis Cristobal buru dakan taldekuak ospittala jasotzeko sozialistak planteatzen dabenari trabak ikusten detsez: "Matsarixan ospittala eraikitzeke PSE-EE alderdixaren proposamenaren harittik, asmuak aurrera egitteko zailtasunak ikusten dittugu: hasteko, inguruak erabillera industrialerako kalifikaziñua daka eta, gaiñera, Eibarko industriarendako garrantzi haundiko tokixa dala pentsatzen dogu. Horrez gain, tokixa umela eta eguzki barikua da eta herritarreri ezer galdetu barik pentsautako proiektua da". Ipuruako komentu inguruari, ostera, bentaja haundixak ikusten detsez: "Erabilli bariko tokixa da, eguzkitsu, lorategixetarako toki morduarekin eta lurrazpitan parking publikua egitteko aukeria be emoten dau". Edozelan be, Hirigintza Batzorde Aholkularixari gaixari buruzko debatia egitteko eskaeria luzatu detsa, herritarrak nahixago daben proiektua aukeratzeko erreferenduma egitteko helburuari jarraituta.

eibar kaleka

Mekola kalia

San Juan kaliaren atzeko partian daguan kaliari esaten detsagu Mekola eta izen berarekin ezagutu zan 1954. urtian etxiak egitteko bota zan Mekola Etxeberri basarrixan. "Eibarko Basarrixak" liburuak diñuanez, 1573xan ospittal zaharraren aldamenian Mecolalde de Suso izeneko etxe bat eguan eta izen bera 1833ko agirixetan agertzen da.

Pegora kopurua: 8

Erroladatutakoak: 114



asteko
50.000
datua

plastiko-poltsa gitxiago erabiltzia eta 300 kilo hondakin eta CO2 200 kilo gitxiago isurtzia helburu dakela, Udaleko Ingurumen sailak, Merkataritza eta Industriakarekin batera eta EMGI-k lagunduta, "Emoidazu bizia" kanpainaarekin bat egin daben 320 dendetan poltsa berrerabilgarriak banatzen dihardue, Hondakiñen Prebenziñorako Europako Astearen barruan.

Madrilgo gobernuko ordezkari bisitan

GASPAR ZARRÍAS LURRALDE LANKIDETZARAKO ES-TATU IDAZKARIXA EIBARRREN BISITAN EGON ZAN martitzenian eta, bestiak beste, Ego Gaiñeko eskillara mekanikuak ikusteko aukeria euki eban. Izan be, eskillarak eta herrixan azken urte bixetan egindako beste obra batzuk Madrilgo gobernuak krisixa dala eta udaleri inbersiñuetarako emondako diru-laguntza berezixekin pagau dira. Dana dala, datorren urtian ez dabe holako laguntasunik emongo, "egoera ekonomikuak hobera egittia es-



2011n ez da obretarako laguntzarik egongo. / SILBIA HERNANDEZ

pero dalako eta, gaiñera, Udal Hauteskundiak egittia aurreiku-taldiak osatu eta martxan ipiñi bittartian etenaldixa emongo litzakeelako".

El Corte Inglés zabaldu zala urtebete

EGUAZTENIAN BAZKARI BATEKIN OSPATU NAHI IZAN EBAN EL CORTE INGLÉS-AK BERE LEHELENGO URTEBETETZIA, Eibarren

merkataritza gunee barrixa zabaldu ebela urtebete betetzen zala goguan. Bazkarixan bertan ezagutzera emon zittuen datuekin oso pozik agertu ziran dendako arduradunak eta jendiaren erantzuna aurreikusten ebena baiño hobia izan dala azpimarratu eben: "Lehelengo urtebete honetan 1.500.000 lagun baiño gehixago pasau da dendatik eta 50.000 txartel barri egin dittugu". Merkataritza guniak hainbat ekitaldi eta jarduera antolatzten ditte aldameneko parkian: aurreko asteburuan bertan Debabarrenako 250 ikasle alkartu zittuen herri kirolen inguruan antolatu zittuen olimpiadetan.



Gerra denporan jaixotakuen bazkarixa

AURREKO BARIKAKUAN ALKARTU ZIRAN 1937-XAN JAIXOTAKUAK, urtero egittien daben moduan alkarrekin bazkaldu eta aspaldiko kontuen gaiñian jardunda eguna ederto pasatzeko asmuarekin. Eguardixan Untzagan batu eta taldeko argazkixa etara ondoren, Peña Txinberan pis-

kolabisa hartu eben. Jarraxan, eta Arrate hotelian bazkaltzeko ordua aillegau bittartian, txikiteuan ibilli ziran. Gerra denporan jaixotako eibartarrak aurtenguan numeruekin jokua egitteko aukeria be izan dabe, gaiñera, 37xan jaixo ziranak 73 urte bete edo beteko dittuelako aurtan.





JOKIN ETA ESPE
30.
urteurrena



ROBERTO PEREZ
40.
urteurrena



Ez zaituztegu ahaztuko!!

Eibarko Ezker Abertzalea

Azaruak 27, zapatua

09.15etatik 22.00etara, VII. TXISTORRAREN EGUNA: kilometro bat txistorra prestatu eta salgai ipiñiko dabe. Egunian zihar kirol erakustaldixak, musikia, jokuak, ... Untzagan. Eibarko Txirrindularixen Elkarteak antolatuta. 23.30.- ORQUESTA MONDRAGÓN TALDIAREN KONTZERTUA, Astelena frontoian, Lambretta Klubak antolatuta. Sarrerak 20 eurotan salgai Ayerbe liburudendan, Birjiñape, Tupi Azpi, Arno, Kaia (Elgoibar), Lanbroa (Elgoibar), Xagua (Ermua) eta Horse (Durango) tabernetan. Lehiatillan 24 eurotan ipiñiko dittue salgai.

Azaruak 28, domeka

MAKILLAUAREN KOFRADIXAREN XVII. KAPITULUA, Eibarko Makillauaren Kofradixiak antolatuta: 11.30etan kofradixeri ongietorrixa eta ondoren kalejiria Untzagako Jubilatuen Egoitzaraiño. 12.30xetan bertan egingo dira Ohorezko Kofradien Zin egittia eta Goruntz abesbatzaren saiua. 11.30.- MAKILLAU TXAPELKETIA, UNTZAGAN.

Azaruak 29, astelehena

18.00.- HERRI KIROLAK: VII. San Andres Txapelketia (aizkolarixen arteko norgehiagoka, bikoteka). Untzagan.

23.00etatik 02.00etara dantzaldixa, JOSELU ANAIK taldiarekin. Untzagan.

Azaruak 30, martitzena, San Andres Eguna

09.30.- XXXII. SAN ANDRES NEKAZAL AZOKAren epai-mahaikuak biharrian hasiko dira. Ganadu erakusketia. 11.00.- USARTZA TXISTULARI BANDAREN KALEJIRA. 12.00.- Narbaiza eta Gorrotxategi BERTSOLARIXEN eta Jainaga eta Narbaiza TRIKITILARIXEN emanaldixa. 12.30.- PLAZARA DANTZARA Erromerixia, Jainaga eta Narbaiza trikitilarixekin eta Kezka Dantza Taldiaren eskutik. 13.00.- San Andres azoka, pintxo txapelketia eta kartel lehiaketako irabazlieri SARIXAK BANATZEKO EKITALDIXA.



Nekazal azokak 306 metro lineal izango ditu

Espazio hori beteko dute nekazal azokan ipiniko diren postuek, modu honetan banatuta: Untzagako karpak 15x30 metro okupatuko ditu, Txaltxa-Zelain kokatuko denak 15x50 metro eta espazio gutxiagoarekin beste txosna batzuk ere izango dira kalean. Guztira, 306 metro lineal hartuko dituzte.

Parte-hartzaileei dagokionez, zazpi modalitateetan ba-

natuko dira postuak: 32 izango dira gaztarenak, 21 ogiarenak, 17 barazkiei eskainiak, zazpi eztiarenak, sei frutekin, txakolinarenak bi eta bakarra lorak saltzen. Guztira, 86 postu izango dira euren produktuak erakutsiko dizkigutenak

Eibarko hiru ordezkari


Maria Teresa Mugarza (Zelaiakua baserrikoa), Aitor Gisasola (Gisasolakoa) eta Enrike



13.00ak bueltan hasiko da sari banaketa. / MAIALEN BELAUSTEGI



86 postu izango dira aurtengo azokan. / SILBIA HERNANDEZ



Gisasola (Sosolakoa) izango dira azokan izango diren eibartarrak. Ez dago ohitura handirik Eibarko baserriarren artean azokan parte hartzeko; hala ere, aipatutako hirurak badihar-


dute parte hartzen azken edizioetan. Ganadu erakusketan, gainera, gero eta parte-hartze handiagoa dute eibartarrak.

Epai-mahaikoek 09.30etan hasiko dira postuak bisitatzen, euren beharra egiteko. Eta 13.00a inguruan banatuko dira modalitate bakoitzeko sariak; ekitaldi berean irabazitako sariak jasoko dituzte ere pintxo txapelketako eta kartel lehiaketako irabazleek. Goiza animatzeko, tartean bertsolariek eta trikitilariak jardungo dute eta baita Usartza txistulari bandak.

San Andresetako jaien aurrekontu osoa 40.000 eurokoa izan da aurtengoa. Eta, urteroko moduan, azoka da jai hauetako ekitaldi nagusienetakoa. Eguraldiak ere izango du zerikusia.

MIREN GARAIZABAL ELKORO

(2010eko azaroaren 21ean
hil zen, 90 urte zituela)



**Udazkeneko
hostuak bezala
gure ondotik
juan zara.
Andra fina
eta bihargina,
Tia Miren, beti
akordauko gara
gurekin izango
bazinan moduan.**

ETXEKUAK

EMAKUME ETA GIZON MODA

Valenciaga



K O N F E K Z I O A K

☎ 943 20 22 33

ZULOAGATARREN, 7

publi resa

- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta
ENPRESETAKO OPARIAK

Armagin 3 - behea

☎ eta faxa: 943 70 14 97

Publi.resa@euskalnet.net



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1. esk.

Tel. 943 208552

*Udazken honetan
zure irribarrea modan*



ANTONIO MURILLO Doktorea:
Masterra Periodontzian eta Inplantologian



AINHOA ZULUETA Doktorea:
Odontologia

DESKONTUA

%10

Protesiak
Ortodontzia
Inplantologia
Periodontzia

DIAGNOSTIKOA
KONPROMISO GABE

BENETAKO
PAZIENTEAREN
IRUDIA

ELGOIBARko San Miguel gainean San Andres Menu Berezia

- Aperitiboa.
- Txopito frijituen entsalada oli-oli ozpin-olioarekin.
- Madagaskarreko otarrainxka basatia plantxan.
- Vieira brotxetak zigalatxoan saltsarekin.
- Basurde-hostopila frutekin eta ostra-saltsarekin.
- Baserriko pikuen biscuit-a txokolate beroarekin.
- Kafea eta ardoa (kriantza).

39,50€+ BEZ

*Jaietan ondo pasatu...
eta mahaian gozatu...*



Belaustegi Baserria

JATETXEA

www.belaustegi.com

**Modistilletan
Menu Berezia,
ondoren DJa (Segura Irratiko Iñigo)
eta oparien zozketa
Abenduak 11, zapatua**

garrantzitsua ERRESERBA egitea



INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK:

Tel. 943 74 31 02

Txistorra eta bakailaoa, jaietako ardatz nagusi

Bakailaoak gero eta tarte handiagoa dihardu harzen gure herriko jaietan. Eta prestaketa lanetan ere gero eta jende iaioagoa ikusten da. Aurreko asteburuan eskolen arteko bakailao lehiaketaren 7. edizioa izan zen jokoan eta, 14-16 urtetako mailan, Mogel ikastetxeko Garazi Goidiurrutia eta Haizea Kortaberria izan ziren garaile; 12-14ko mailan, bestalde, La Sa-



Txistorraren Egunak VIII. edizioa biziko du aurten. / MAIALEN BELAUSTEGI



Bakailaoa da jai hauetako protagonista nagusietakoa. / MAIALEN BELAUSTEGI

La Bacaladera enpresakoa eta ...eta kitto! elkartea izendatuko dituzte ohorezko kofrade.

Txistorra eta pintxoak

Bihar, bestalde, Txistorraren Egunak eguerditik gauera arte beteko du herria. Entzierro txikia, salda banaketa, dultzaineroak eta disko-festa Arnorekin izango dira, beste gauzen artean, eta gaztetxoaren gozamenarako zezentxo eta poniak izango dira.


Atzo, bestalde, astekaria inprentara bidali eta gero, Arrate Kultur Elkartearen VII. pintxo lehiaketa izango zen jokoan. Herriko 27 tabernak zuten izena emanda, inoiz baino partehartze handiagoa. Sukaldariak ez dira falta gurean!

lako Lucia Lupeña nagusitzen. Taldeka La Salle Azitain eta Aldatze izan ziren irabazleak. Horko 32 bikoteak motz geratuko dira domekan helduen lehiaketan parte hartuko duten 50 bikoteekin alderatuta. Ez hori bakarrik: beste hamasei kanpoan geratu dira, su gehiago ez dagoelako. Egun berean, Bakillauaren Kofradixiaren beste edizio bat egingo da: aurten Jose Antonio Azpilkueta artista, Jose M^a Salvador de Laurentis

METALEZKO ERAIKUNTZAK ETA ALUMINIOZKO ETA PVC-KO AROZTEGIA



Aluminio, PVC eta aluminio-egurrezko leihoen fabrikazioa. Lan mota guztiak burdin eta altzairu herdoilgaitzetan.



Beti Berria Bezala

TAILERRA: Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoa: 943 121 367 Faxa: 943 120 150

ERAKUSKETA: Urkizu, 26 - behea
Tfnoa. eta Faxa: 943 127 401

info@ulmar.net - www.ulmar.net

– ULMAR-en Renove Plana:
% 15eko deskontua

– EUSKO JAURLARITZAren Renove Plana:
% 22ko deskontua

BEZeRo GUZtiEndaKO San AndRes ZORiontsuak!



KARRIKA TABERNA
skopuzeko eta zabaldu
komunikabariak ez dira 10, 15 eta...
info+ Karrika.com
 Bista Eder bidea, 3, 20090 Eibar
 Idazki: info@karrika.com - jarraitu @karrikataberna

ZONA WIFI

LUR

DISCO

PE

BAR

music

guridi rugby
taberna




GORA SANANDRESAK!!!

Bista Eder, 10

Portalea
Jatetxea

"Eguneko Menua"
 Afariak Asteburuetan
 Pintxoak
 Ogitaratekoak



943 20 68 68

IGANDEETAN ITXITA

San Juan, 4ac

ZABALIK GOIZEKO
 9.00etatik

Kafe beregiak... eta musika onena
Ardoetan auzera gabala

TXURRUT



birjiñape, 1 behea
 tel. 943 20 71 00

SOKOA



Hilbehera
taberna
EIBAR

Errebal, 24
 943 70 13 23

Zatoz ondo
pasatzera
Sanandresetan
ere



GARAGARDOAK

Urkizu, 11 Tfnoa. 943-254060



Zubi-Gain
 URKIZUKO
 DORREETAN

J. Etxeberria, 2 Tfnoa. 943-207165



Ego-Gain
 ANBULATEGIAREN
 AURREAN

OGITARTEKO, KAZUELITA, TAPA ETA PINTXO BEREZIETAN ESPEZIALIZATUAK

Kontzertuak eta dantzak presente izango dira jaietan


Bihar Orquesta Mondragonek Astelenan eskainiko duen kontzertuak indar berezia du San Andres jai hauetan. Lambretta Klubak antolatu du, urteroko jardunarekin jarraituz, eta aspalditik Eibartik pasatu ez den musikariaren lana ikusteko aukera izango da bihar, 23.30etatik aurrera. Sarrerak salgai daude, 20 eurotan, Ayerbe liburudendan eta Birjiñape, Tupi Azpi eta Arno ta-



bernetan. Lehiatilan 24 euroko prezioa izango du sarrerak. Ja-



Iaz ere oso giro beroa izan zen Lambrettak antolatutako kontzertuan. / SILBIA HERNANDEZ



Joselu Anaiak-en kontzertua izango da beste behin sanandresetan. / MAIALEN BELAUSTEGI

vier Gurrutxagaren taldeak "El maquinista de la General" kaleratutako azken lana aurkeztuko dute Eibarren.

San Andres bezperan, bestalde, ohiko kontzertua izango dugu, aurretik ere egun horretan gure herrian jo duen Joselu Anaiak taldearekin. Kontzertu hori Untzagan izango da eta, 23.00etan hasita, goizeko 02.00ak inguruan amaituko da.

Plazara Dantzara 30ean

Eta nekazal azoka egunean Plazara Dantzara erromeria dantzatzeko aukera izango da, hau ere Untzagan. Eguerdiko 12.30etan hasiko da dantzaldia eta Jainaga eta Narbaiza trikitilariarekin lagunduta, Kezka Dantza Taldeak eskainiko du. Mesedegaria izango da, euskal doinuak entzutearekin batera, baserritar jantzita parte hartzea egun horretako ekitaldietan.



Plazara Dantzara ikuskizuna martitzenean egingo da Untzagan.

**PURRITX, PORROT
ETA MARI NOTOTS**

**berriro ere
EIBARREN**

**'Ongi etorri.. Pupu eta Lore'
ikuskitun berriarekin**

**Abenduaren 11n
16.30 / 19.00**

**Abenduaren 12an
16.00 / 18.30**

SARRERAK

(7'00 euro)

**e&m argazkidenda, Gozoki,
El Tío Palancas eta ...eta kitto!-n**

Hortzordeekin arazoak?



Goiko hortzordeak

- ✓ Janarien zaporea blokeatzen du
- ✓ Plastiko artifiziala
- ✓ Itsasgarri likatsuak
- ✓ Hozkada ahula
- ✓ Goragaleak
- ✓ Egoera deserosoak



Goiko aldeko implanteak

- ✓ Ahosabai garbia
- ✓ Plastikorik gabe
- ✓ Itsasgarririk gabe
- ✓ Hozkada indartsua
- ✓ Goragalerik gabe
- ✓ Ustekaberik gabe

Zure hortzordeek jaterako oztopo bihurtu zaizkizu eta zure irribarrea eta itxura lehengoak ez izatea ekarri dizkizute? Orduan, zertarako xahutuko duzu zure dirua adabakietan? Badira soluzio BERRIAK implanteetarako aurrez baztertutako lagunentzat.

Deituiguzu 902 468 209ra eta korreoz bidaliko dizugubestelako informazio guztia.

Jan eta barre egitea zoragarria izan daiteke berriro!

Ibarbea Zehar., z/g (Rialto Zehar.) EIBAR www.esteticadelasonrisa.com




Andoni Guisasola Ron Doktorea
R.P.S. 156/5

NEKAZARITZA TRADIZIONALA ETA BABESTUA

ZELETA BARAZKIAK



Ekoizpen prozesuan energia berriztagarriak erabiltzen ditugu



- Landareen produkzioa
- Laborantza kontrola
- Eskuz eginiko aukeraketa
- Banaketa
- Bertako produktuetan erantzunik gertukoena

Orain Elgoibarko
NETTOn ere bagaude

ZELETA BASERRIA • San Migel auzoa / ELGOIBAR • Tfn. 609 35 76 19 / 943 74 88 95 • www.zeletabaserria.com

Jesus Artolazabal izena entzutiarekin batera jateko gogua piztuko jako askori. Ez dittu, horrenbeste urte lapiko eta su artian alperrik emon Artola jatetxia sortu eta luzaruan bertako ugazaba izandakuak. Aitta baten modura, apellidua ez eze bizitza be emon zetsan jatetxiari. Eta jatetxian emon zittuan urtien gaiñian berba egitten deskun bittartian begixak zelan pizten jakozen ikusitta, jatetxiak berari emon detsan bizittasuna be benetan haundixa izan dala begibistakua da. Beste sukaldari baten etxian, Mireia Alonso eta haren famelixaren jatetxian, Arrateko Krabeliñen topau dogu, Justi emaztiarekin bapo bazkaldu ostian tertulixari ekiteko prest.

Bixar amaittuko dira aurren zazpigarren urtia bete daben Krabeliñeko maridaje jardunaldixak. Afari bakotxa bakarra, berezixa izatia eragitten daben hamaika arrazoi dagoz. Baiña hórrek hamaika arrazoiere beste arrazoi bat gehittuko detse bixar: Jesús Artolazabal sukaldarixa omentzeko jardunaldixa preparau dabe Krabeliñen eta, sukaldian ez eze, Eibarren zein beste herri askotako lehiaketetan, epaile modura jardun daben egunekin akordauta, gazta-degustaziñuak beosatu-ko dau jardunaldiko ardatza. Krabeliñeko ugazabak *“maittasun guztiarekin”* eskindu nahi detsan omenaldixari, gaiñera, Udalak grabadore-bolia emonda egin nahi detsan errekonozimientua gehittuko jako.

Omentzen diran beste guttien modura, Artolazabalek ez detsa aparteko meritorik topa-



Sukaldiarekin maiteminduta

tzen sukaldaritzan egin daben ibilbidiari eta taillarra laga eta jatetxia martxan ipintzen zelan animau zan erregular kontau desku: “Nik betidanik euki izan dot zaletasuna, ume-umetatik. Goguan dakat ama sukaldian eguan bakotxian zelan nahi izaten netsan zeozertan lagundu. Urtiak pasau eta soziedadian, lagunartian segidu neban afiziñuarekin. Eta holan, jardun eta jardun, gauza barrixak ikasten juan nintzan sosiguz sosiguz. Sukaldari moduan jardun aurretik Alfan egitten neban biharra, 1957xan hasi eta 1979. urte inguruan ofiziuua kanbixatzeko erabagixa hartu nebanera arte”.


Taillarra laga eta lapiko artera saltua

Edade batetik aurrerakuak ondo gogoratuko daben moduan, 80ko hamarkadan krisi haundixa ezagutu eban Eibar

eta inguruan eguan industrixak eta Alfa ez zan salbuespena izan. Halanda be, Artolazabalek ez eban euki lanpostua galtzeko beldurrik, nahi izanez gero taillarrian segitzeko aukeria eskindu zetsen eta. Baiña ordurako jatetxia zabaltzeko asmuak gero eta forma haundixagua hartzen ziharduan eta, urtebete taillarretik kanpora, jatetxia martxan ipintzeko biharrian pasau eta gero, exzedentzixia luzatzeko aukerarik ez zetsenian emon zirt edo zart, batera edo bestera juateko erabagixa hartu bihar izan eban: *“Ez pentsau erabagixa hartzia erreza zanik, ondo pentsautakua izan zan, etxian famelixarekin batera hartu neban taillarratik urten eta jatetxian biharrian jarduteko erabagixa”*.

Sukaldari haundixen aldamenian

Baiña jatetxe bat hutsetik sortu eta Artolak hartu eban mailla hartu arte gogotik egin bihar da biharra. Eta zaletasuna eukitziak edozeri ekiteko orduan bentajia izanda be, sukaldeko profesional haundixen aldamenian ordu asko pasauta ikasi zittuan Artolazabalek ofizioko gauza mordua: *“Jatetxia inaugurau aurretik asko mugidu nintzan batera eta bestera, Iñigo Murua, Txomin famosuaren seme Ricardo Idiaquez eta beste profesional askoren laguntasun haundixa euki neban eta eureri ikusitta ikasi nittuan gauza asko eta asko. Hortik aparte, herri*



30 urtian lehiaketetan epaillia izan dan Jesusen laguntasuna benetan eskertzen dau Mireiak.

guztietan antolatzen ziran lehiaketak eta sukaldaritzaren inguruko jardunaldixak, horretxek izan ziran nik izandako eskolarik onenak". Batian arraiña zelan preparau, bestian okelia zelan erre bihar dan... "ahal zan toki guztietan denetarik egitten, toki bakotxian zeozer ikasten juaten zara beti".

1983an Bilboko ufalak pasau eta gitxira Euskal Telebistako lehelengo sukaldia izan zana zelan inaugurau eban ondo gogoratzen dau "Zubigaiñeko Miguelekin batera, soziedade batian afarixa preparatzen, holan inaugurau genduan ETBko lehelengo sukaldia".

Sukaldari generaziño bi

Lehiaketetako epaiamahaixetan sarri aldamenian jarritta euki daben Mireia Alonso beste generaziño batekua da, baiña horretan arrazoi osua emoten de tsa mailla haundi batian berarendako maixua izan dan Arto-lazabali: "Neuk be oso gazte nintzala erabagi neban sukaldarixa izan nahi nebala, horretan jardun nahi nebala. Baiña gure ama sukaldarixa zan eta ez zetsan grazia haundirik egiñ sukaldari eskolara juateko nere eskeriak. Halanda be, udan Chalka jatetxera bialdu ninduan biharrera, aspertu eta sukaldari izateko kontuarekin ahaztu egingo nintzala pentsautu edo. Baiña ni gero eta pozixago bueltatzen nintzan etxera, egunetik egunera argixago ikusten neban sukaldarixa izan nahi nebala. Eta holan hasi nintzan Donostiako sukaldaritza eskolan. Edozelan be, geuretako derri-gorrezko praktika modukuak

izaten ziran jardunaldixetan, beste sukaldarixekin izaten genduzen hartuemonetan ikasten zenduan gehixen".

Etxe barruan tradiziñoz sukaldia andrazkuen territorixua izan dan arren, etxetik kanpora duguazten sukaldietan gizonezkuak izan dira jaun eta jabe bakarrak oiñ arte. Askorendako ulertzeko gatxa dan fenomenua, baiña, danok ulertzeko moduan, berba gitxitan esplikau desku Mireiak: "Egixa esan, ikasle sasoiari sukaldari izan nahi genduan neskak begittan hartzen ginttuen mutillak. Oin-diok be andria etxian, famelixia zaintzen egon bihar zala pentsatzen eben askok, gizonak etxetik kanpora biharra egiñ eta soldatia eruan bihar ebala pentsatzen eben moduan. Horregaittik, sukaldaritzatik bizimodu aurrera etaritzen eban gizonezkuari ondo begiratzen zetsen, baiña andrazkuan kasuan ez zan gauza bera pasatzen".

Sasoi polittak bizi izandakua

Artola jatetxia krisi aldixan jai-xota be, oso sasoi polittak ezagutu zittuan. Jesusek maittasun haundixarekin gogoratzen dittu hasierako urtiak: "Jatetxia zabaldu eta segiduan hasi giñan produkto diferentiak ekartzen, sasoiari sasoiako produktuak eskintzen ahalegintzen giñan beti. Batzuetan nahi genduzenak lortzia ez zan kontu erreza izaten, baiña muga hortxe bertan eukitta, kategorixako produktuak lortzeko toki ona zan orduan be. Eta holan, punta-puntako janarixak eskinduta ixa konturau barik geure tokixa topatzen jua giñan".



Bixak sukaldarixak dira, baiña generaziño diferentietakua. Halanda be, bat datoz sarrittan.

Biharrian jarduteko moduan aldaketa haundixa izan dala pentsatzen dabe sukaldari bixak: "Orduan sasoiari sukaldia beti zabalik euki bihar izaten genduan, bezeruak nahi eban arte hantxe egoten giñan, noiz jaikiko ziran zaiñ. Horretan asko hobetu dira kondiziñuak".

Gaztaiak eragindako harremana

Jesusek eta Mireiak alkar ezagutziaren "kulpia" gaztaiak euki eban, Mireiari epaimahai batian parte hartzeko inbitaziñua egin zetsenian aholku billa Jesu-

sengana jo ebanian. Holan, ez da bape arrarua bixarko omenaldixan gaztaia protagonista izatia. Codorníu-k okasiñorako ekarriko daben ardaa be ez da edozelakua: mahats baltzarekin egindako cavarekin, Pinaud Noire izenekuearekin egingo dabe topa sukaldari bixak, jardunaldixan parte hartzera animau diran lagunekin batera. Eta mahaittik jaikitzeke prisabarik, baietz lagunarteko berbaldixan orduak konturau barik jua. Izan be, eurak iñork baiño hobeto dakixen moduan, su motelian egindakua izan ohi dira goxuenak.



**San Andres
Gozotegia**

- **tartak**
- **enkarguak**
- **etxera**

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

ITURRI

ARDOAK

ETXERA ERAMATEN DUGU

Eibariko Merkatu Plaza - Rialto

Tel. 943 12 05 87

GANTZAK: onuragarriak ala kaltegarriak?

Askotan entzuten dugu gantzak hartzea kaltegarria dela. Baina gantzak edo lipidoek garrantzi handiko funtzioak betetzen dituzte gure gorputzean: energi iturri eta erreserba, organo bitalen babesle, hotz isolatzaile, ezinbesteko gantz azido eta bitamina A, D, E eta K eramaile, hainbat hormonon osagai, besteak beste. Omega-3 eta omega-6 gantz azidoak onuragarriak direla osasunarentzat eguneroko kontua da; baina badakigu zertaz ari garen, zer diren? Omega-3 eta omega-6 izenek konposizio kimikoei dagokie; gantz azido esentzialak dira, hau da, gorputzak berak ezin dituela ekoiztu eta derrigorrez kanpotik, elikagaietatik hartu behar ditu. Omega-3ak arrain urdin, itsaski eta intxaurretan dira nagusi eta omega-6ak hazi eta euren olioetan gehienbat. Gantz azido esentzial hauek gure sistema kardiobaskularra babesten dute, odoloko kolesterol maila jaisten laguntzen dutelako. Hala ere, haragian, hestekietan, esnean, gurinean, gaztan aurkitzen diren gantzak saturatuak dira eta kaltegarriak izan daitezke kolesterola igo daitekeelako eta bihotz eta odol zirkulazio arazoak eragin ditzaketelako. Jakina da gehiegizko gantz kontsumoa orokorrean, eta saturatuena bereziki, laguntzaile dela koronarien gaixotasunerako eta obesitateko. Osasuntsu izateko gantza behar beharrezko elikagaia da; har ditzagun kontuan onurazkoak direnak.




Silvia Zuluaga

ZORRIAK HARTU DITU UMEAK. ZER EGIN




Eskola garaia iristearekin batera haurren artean zorri infekzioak berragertu ohi dira, kasurik gehienetan haurrek higiene neurri egokia izan arren. Badira zenbait gai zorriak akabatzeke egokiak, ez dira kosmetikoak, benetako bioazidoak baizik, arrazoi hau dela eta erabilerara arauak zorrotz errespetatu behar dira. Tratamendua egin ondoren bartz edo hildako zorriak kontu handiz kendu behar dira, horretarako bereziak diren hortz estudun orraziak erabiliz. Kutsatua izan den inguruko buruak ere miatu behar dira, ikaskideak, senideak... Eskolara honen berri ematea ezinbestekoa da. Arropak ur berotan garbitu behar dira eta aukera izanda lehortu ere bai. Orrazi eta gainerako tresnak ordu erdiz beratzen eduki intsektizida disoluziotan.



ZER EDUKI BEHAR DU ETXEKO BOTIKA KUTXAK




Sukar eta minerako analgesikoak: aspirina, parasetamola, ibuprofenoa. Termometroa. Desinfektagarria: iodoa, klorhexidina, alkohola, ur oxigenatua. Sendatzeko: gasa, esparatrapu, tiritak. Erredurarako ukendua. Aukerakoak dira gaixo kronikoaren ohiko sendagaiak eta garai jakin batean osasun profesional batek agindutako sendagaiak. Bestalde, balioa galdutako sendagaiak kendu egin behar dira kutxatik, eta baita gutxi irauten duten sendagaiak (kolirioa, prestatu beharreko xarabeak...) eta tratamendua bukatu ondoren soberan geratutakoak ere. Botika kutxak leku fresko, lehor eta haurren helmenetik kanpo egon behar du, eta ahal bada, sukaldetik edota komunetik kanpo.



ZEINTZUK DIRA IDORRERIA SAIHESTEKO NEURRIAK



Komeni da egunero barazkiak (onena gordinik) hartzea, zuritu gabeko fruta eta ogi integrala edo beltza. Elikagai hauek zuntz ugari dute, urari eusten diote eta libratzea erraztu egiten dute. Likido ugari edan behar da, mantso eta ondo murtzikatuz jan, hesteak hezi, hau da, libratzeko gogoia sumatu orduko joan zaitez, ez eutsi gogoari. Ordu beretsuan komunera joatera ohitu eta libratzerakoan ez ezazu gehiegizko indarririk egin. Egunero ariketa fisikoa neurrian egin. Denbora hartu ibiltzeko, bizikletaz ibiltzeko, soinketa egiteko... Libragarri narritagarriak saihestu, horien erabilerak menpekotasuna sor ditzake-eta.





INMOBILIARIEN GEHIGARRIA

24. zenbakia. 2010eko azaroa

Publizitatea: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. Tel. 943 20 67 76. Faxe. 943 20 28 72

EUKI

FINKAK

 API 323

- **GESTIO INMOBILIARIOA:** alokairuak, erosketak, salmentak, tasazioak, kontratuak...
- Galdetu zure etxebizitzaren **FINANTZIAZORAKO BIDEA:** mailegu hipotekarioak, pertsonalak...
- **INFORMAZIO PERTSONALIZATUA**



Toribio Etxebarria, 1 943 20 03 58 Faxe. 943 82 04 03 fincas@euki.com

HERRIA	KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
EIBAR	Bidebarrieta	90 m ² . Berrizteko. Igogailua. Kalefakzioa.	39.800.000 pzta
EIBAR	Zuloagatarren	3 logela, egongela handia, sukaldea, 2 komun. balkoia, igogailua. Kalefakzioa.	47.700.000 pzta
EIBAR	Untzaga	75 m ² . Berrizteko. Igogailua. Bista ezinhobeak.	39.800.000 pzta
EIBAR	Ipurua	3 log., egong., suk., bainug., kom. Ganbara. Altua. Bistak. Egoera onean. Igog. Kalefak.	
EIBAR	Barrena	Moderno. Ezin hobe. 4 log., egong., suk-. 2 kom. Trasteroa. Kalefak. Igogailua.	
EIBAR	Jardiñeta	la berria. 2 log., egong., suk., 2 kom. Altua. Bistak. Garajea. Trasteroa. Ezin hobe.	42.500.000 pzta
EIBAR	Abontza	Atiko-apartamentoa. 2 terrazarekin.	29.800.000 pzta
EIBAR	Sautsi	2 log., egong., suk., 2 kom. Garajea. Trasteroa.	36.500.000 pzta
EIBAR	Errebal	Eraikin berria: 2 logela (38 milioi pezetatik aurrera) garajea eta trasteroa (5 milioi pzta)	
EIBAR	F. Calbeton	Eraikin berria: 2 logela	47.500.000 pztatik aurrera
EIBAR	T. Etxebarria	Eraikin berria: 3 logela	61.200.000 pztatik aurrera
EIBAR	Bidebarrieta	Eraikin berria: apartamentuak	30.000.000 pztatik aurrera
EIBAR	Isasi / Ego-Gain	Eraikin berria: 2 logela	45.000.000 pztatik aurrera



A.P.I.: Rosa Juaristi

**Arragueta, 2 bis B-behea
20600 EIBAR**

Tel. eta Faxa:

943 20 08 60

rosa@inmobiliariajuaristi.com

www.inmobiliariajuaristi.com

- salerosketak
- errentamenduak
- traspasoak
- balioztatzeak



...eta **kitto!** aldizkariaren
INMOBILIARIEN GEHIGARRIA

**IBAI-ONDO.
EIBAR**

www.ibaiondoinmobiliaria.com

**Bidebarrieta, 24 - behea
Tel. 943 20 12 13**

HERRIA	KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
EIBAR	Urkizu inguruan	3 log., Egong., suk eta kom. Kalefak. Igog. Guztiz jantzita. Sartzeko moduan.	210.000 €
EIBAR	Urki	2 log., egong., suk. eta kom. (jacuzziarekin). Kalefak. Igog. Balkoia. Berriztuta. Sartzeko.	196.000 €
EIBAR	Barrena	Atikoa. 1 log., egong.-jang., suk., kom. Berriztua. Sartzeko. Gazteendako aproposa.	134.600 €
EIBAR	Ipuru inguruan	2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Kanpora. Sartzeko moduan.	156.263 €
EIBAR	Calbeton	3 Log., egong.-jan., suk., komun bi. Eraikuntza berria. Guztiz jantzita. Sartzeko moduan	
EIBAR	Amaña	Hainbat etxebizitza. 2/3 logela.	144.000 €-tik aurrera
EIBAR	Urtzaile	3 logela, egongela handia, sukaldea, komuna. Kanpora. Eguzkitsua. Sartzeko.	200.000 €
EIBAR	Barrena	Hainbat neurri eta prezioko etxebizitzak. Garajea eta trasteroa aukeran.	Galdetu
EIBAR	J. Etxeberria	130 m ² . Etxe handia. 5 log., egong., suk., 2 kom. Igog. Eguzkitsua. Bistak. Aukera handiak. Galdetu	
EIBAR	Bidebarrieta	3 log., egong., suk., 2 kom. Igog. Ganbara. Kanpora. Balkoi handia. Kalefak. Sartzeko.	300.000 €
EIBAR	J.A. Mogel	Etxe polita. 2 log., egong., suk.-jang., kom. Kalefak. Berriztua. Jantzita. Kanpora. Ganbara.	
EIBAR	Jardiñeta	2/3 logelako hainbat etxe.	Galdetu
EIBAR	Bidebarrieta	Etxe polita. Logela bat (bi egiteko aukera). Igogailua. Kalefak. Sartzeko moduan. Galdetu	
EIBAR	Bidebarrieta	100 m ² ko hainbat etxebizitza. Berrizteko.	138.000 €-tik aurrera
EIBAR	T. Etxebarria	Hainbat tamaina eta prezioetako etxebizitzak.	210.000 €-tik aurrera
EIBAR	Urki	2 logela, egongela, sukaldea, komuna. Kanpora. Pisu altua, igog. Eguzkitsua.	156.000 €
EIBAR	Estaziño	Etxe handia. 90 m ² . 3 logela, egongela, sukaldea, komuna. Berrizteko. Aukera handiak.	
EIBAR	Zuloagatarren	Tamaina handiko hainbat etxebizitza. Aukera handiak.	Galdetu
MALLABIA		Txalet zoragarria. 3 logela, egongela-jangela, estudioa, sukaldea, 2 kom. Ardandegia. 100 m ² ko terrenoa.	
EIBAR		Eraikuntza berria. 1/2/3 logela.	173.000 €-tik aurrera
SORALUZE, DEBA, MUTRIKU, DONOSTIA ETA ZUMAIAN ETXEBIZITZAK, TXALETAK ETA ERAIKITZEKO MODUKO TERRENOAK.			
BASERRIA. AZKARATEKO KOKALEKU ZORAGARRIAN.			234.000 €
ELGETA		Etxebizitzak eraikuntza berrian.	186.800 €-tik aurrera
EIBAR		Tamaina desberdinetako lokal komertzialak alokagai. Isasin 110 m².	
GARAJEAK HAINBAT LEKUTAN. 36.000 €-tik aurrera.			
PABILIOIAK. TAMAINA ETA PREZIO DESBERDINAK.			
TRASPASOA: MARTXAN DAGOEN JATETXEA EIBARREN.			

...eta kitto! aldizkariaren
INMOBILIARIEN GEHIGARRIA

**ESTUDIO PS XXI.
ELGOIBAR**

**Pedro Miguel de Urruzuno, 4 - 2.
Tel. 943 74 23 06**

HERRIA	KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
EIBAR	Abontza	2/3 logeletako pisuak.	234.400 eurotik aurrera
EIBAR	Erdigunea	97 m ² . Terraza. Sartzeko moduan. Kanpora.	371.425 euro
EIBAR	Erdigunea	100 m ² . Berrizteko. Kanpora.	288.450 euro
EIBAR	Erdigunea	114 m ² . Sartzeko moduan. Kanpora.	309.500 euro
EIBAR	Ubitxa	57 m ² . Berrizteko. Kanpora.	150.250 euro
EIBAR	Barrena	65 m ² . 3 logela. Berrizteko.	132.250 euro


**MAPFRE
ASEGURUA**

**GARMENDIA
INMOBILIARIA**

**PISUAK ETA LOKALAK
salgai eta alokairuan**

San Juan, 7 - behea Tel. 943 203 413
Faxa: 943 200 324 -EIBAR-


Salerosketak
Traspasoak
Tasazioak
Alokairuak

Errebal, 19
943 70 16 57
Faxa. 943 70 07 51


donpiso
FIDATU ZAITEZ PROFESIONALETAZ BAKARRIK

Zure etxea saltzeko
modurik azkar, errez
eta eraginkorrena

Isasi, 16an

donpiso@donpisoieibar.com
www.donpiso.com Tel: 943 82 05 10 Faxa: 943 20 81 81


**HIGIEZINAK
ARREGI
INMOBILIARIA**

Errebal, 12 - behea 20600 EIBAR
Tel./Faxa. 943 203 333 Mobila. 656 766 344
www.inmoarregi.com

Armeria Eskolako ikasle onenei sariak

Aurreko eguenean banatu ziren Armeria Eskolan zentroak urtero espezialitate bakoitzeko ikasle onenari ematen dioten sariak. Sariak azken ikasturteko irabazleei eman zitzaizen, Ikasle-en Gurasoen Elkarteak antolatutako ekitaldiaren barruan.

Honakoak izan ziren sari-tuak, guztiak ere 2. mailan: Aitor Zubikarai eta Arkaitz Martín (Mekanizatuaren bidezko Produkzioa), Alberto Maqueda (Telekomunikazio Sistemak eta Informatika), David García eta Ion Zabala (Erregulazio eta

Kontrol Automatikoetako Sistemak), Mikel Caeiro (Instalazio Elektrokoetako Ekipoak), Mikel Arribas eta Oscar Rodríguez (Mekanizatua), Mikel Gallastegi (Ekipo Berezien Mantentimendua), Jose Antonio Fernández (Erregulazio eta Kontrol Automatikoetako Sistemak) eta Olatz Arizaga eta Jesus M. Sancha (Mekanizatuaren bidezko Produkzioa). Sari berezia Ane Marfull Gisasolak jaso zuen Erregulazio eta Kontrol Automatikoetako Sistematan lortutako espedientearen mailarengatik.



La Salle Azitainen eskaintako hitzaldietako bat.

Bokazioen aldeko programa La Sallen

Pastoral programaren barruan, bokazioen aldeko programa eraman da aurrera, azken hilabetean, La Salle Azitainen. Hori dela-eta, hainbat lagunek behartsuen alde lan egitea zer den erakutsi dute hainbat topaketatan.

Bertako salletar anaiak izan dira parte-hartzaile, ikastetxeko gaztetxoekin izandako saioan. Gainera, Batxilergoko gazteek Jose Ignacio Martínen esperientzia ezagutzeko aukera izan

dute eta baita ideiak partekatze-ko; Sestaon egiten diharduten Artizar proiektuaren berri eman zien Martínek. Asmo berarekin, Gurutze Gorriko etorriberrien ardura duen Sonia Gisasola DBHko ikasleekin izan zen, eta langabezian egotea eta gizarte arazoez inguratuta bizitzea zer den azaldu zuen. Azkenik, Marta Tempranok DBHko gaztetxo-
ei Nikaraguan egiten duen hezkuntza eta laguntza sozialaren berri eman zuen.



Armeria Eskolan egindako ekitaldian saritutakoak.

Orangeko Banatzaile Ofiziala, 40tik gora dendekin Espainia guztian, telefonia mugikorra, finkoa eta internet komertzializatzen ditu.

etorri gurekin lan egitera

bilatzen duguna:

- zu moduko jendea
- jendetasuna izatea
- merkataritzarekiko interesa
- lan egiteko gogoia

eskaintzen duguna:

- etengabeko formakuntza
- lanean berehala hastea
- lan giro egokia
- soldata finkoa

tohnos
mobile

ez pentsatu gehiago
saltzailea behar da
Eibarko Eroski MG-n

bidali zure C.V. rrhh@tohnos.es



Cowboyak, epika eta taberna giroan gau laburrean

Baja batekin hasi zen gaua Rombos Negrosekoak ezin izan zuten-eta jo taldekide guztiak ezin izan zirelako agertu. Hala, hasierako huts horrekin, gauak hobera besterik ezin izan zuen egin. Horren erantzule bakarrak gainontzeko taldeak izan dira: Doctors Klub, Karpovian Project eta Ez!

Doctors Klub

Lehenak oholtza hartzen Doctors Klube-koak izan ziren. Cowboy txapela buruan, aretoa berotzeaz gain, ikusleei 'lassoa' botatzea ere izan zen Durangalde County-ko mutikoteen lana. Giritze ahalegina ez zen gutxiestekoa izan, lasto-fardo eta guzti agertu zitzaizkigun-eta Espaloian. Txukun eta gitarra laztanduz hasi ziren, harmonikarekin eta suabe abestuz. Belar lastoa ahoan ala tabakoa mastikatzen, gozatu beharreko kontzertua inondik inora. Danbakari, behintzat, aurtengo ukitu berezia eman zioten.

Hasiera lasaitxoari buelta emanez, bateria sartu, 'yee-ha!' pare bat eta hasi zen koadrodun alkandoradunen festa. Agian, makalen ahotsetan jardunik ere, harmonikaren epeltasunak goxatu nuen ahotsen lakartasuna, punkyagoa izan zena countrya baino. Gogotsu eman zioten, halere. Konbentzitu

zuten lan txukuna eginez, inor ezustean harrapatu barik, baina abesti zein manera dotoreak erakutsita. Pena banjorik ekarri ez zutela. Hori bai, amaiera ederra egin zuten, guztiak fardoetan eserita, txaloekin erritmoa eramanez, kuadrila giro epelean eta azkenean txapelak botata. Chapeau?... Hainbestera-ko ere ez.

Karpovian Project

Bigarrenik Danbakako ohiko metal anoa, baina ohikoan baino berun kopuru gutxiagokoa; melodiaren alde eginez, hortaz, rockerago. Hori bai, epikotasun sentimentala ez zuten baztertu -geurean hain ondo funtzionatu ohi duen ukitu hori-. Ikuslerik fine-nak ere hauek ekarri zituzten; lora eta guzti bota zizkieten (metaforikoak).

Patroietatik irten barik, baina estu egon gabe, neurrian instrumentu guztiak eta ahotsa; baina -beti baina bat- egur apur bat gehiagok distira eta presentzia emango lieke mutrikua-rreri. Ondo prestatutako emanaldiek ordain ona izan ohi dute Danbakan eta hauek entsegu-lokal usaina gehi zuzeneko askoren izerdia ekarri zuten barixakuko jantzietan. Hala



Doctors Klube-koak lasto-fardo eta guzti agertu ziren Espaloian eta aretoa ondo berotu zuten.

ere, zerbaiten gabezia sumatu zen eta zera hori agian ez zuten entseguen lau hormen artean aurkituko, ezta beste barik zuzenekoan transpirazioan. Bila jarraitu behar.

Ez!

Laburra, ona bada, bi aldiz ona; eta bari-xakuko saioa, behintzat, motza izan zen. Ez! Oñatitik, gitarra zorrotz, bateria temati eta tabernako ahotsarekin. Kaleko betiko soinua, beharbada, espero baino tonu lasaitxoagoan. Gaueko presentziaren saria hauena izan zen, baina paperean erabat murgildutako erdi abeslari, erdi antzezlearekin. Dantzarako aukera eman zuten, alaitasun puntua ere. Dibertsioa ekarri zuten hauek, osterantzean piper eta gatz gutxiak izango litzatekeen saiora. Txukunen eta garbien ez dute jo, baina bai dibertigarrien. Punk-rocka beti izan ohi da efektiboa eta, are gehiago, garagar-do ondutako melodiak laguntzen badute. Eurak gustura daudela esan zuten eta kexatu, behintzat, ez zen inor kexatu. Gerria ederto mugitu duenik ere izan zen. Oe oe, lo, lorolo, lo eta festa egin zuten.

Pop, folk eta rock doinuak gaur Espaloian: Eibarko Seafóid tartean izango da

Danbakako azken-aurreko kontzertua izango da gaurkoa –abendua– 17an izango da azken emandua. Ondarroako Xarma, Aramaioko Deabrutu, Eibarko Seafóid eta Aretxabaletako Scam taldeak igoko dira Espaloiko taula gainera. Helburu bera izango dute: urtarriaren 14an jokatu den finalerako txartela. Ohikoa den moduan 22:30ean hasiko dira kontzertuak. Sarrerak salgai daude 5 euroren truke; eta, Gaztekutxan 3 euroren truke. Ondarroatik etorriko da Xarma taldea. Euskarazko rocka ekarriko du 2007an

sortutako taldeak. Ondoren, Aramaioko Iñaki Urizar igoko da taula gainera. Bateria jotzailea da Urizar; eta, hori da hain zuzen eskainiko duena: muturreko bateria saioa.

Eibarko Seafóid 2009an sortu zen taldea da. Folk, pop eta rock doinuak ekarriko dituzte eibartarrek. Ingelesez abesten dute Iñaki, Jorge, Victor, Pau eta Johnnyk. 2004an Aretxabaletan sortutako Scam taldea igoko da azkenekoz taula gainera. Mikel, Imanol, Paulo eta Ander dira taldeko kideak, eta rock musika egiten dute.



SEAFÓID / Eibar

Seafóid talde eibartarra 2009ko udazkenean sortu zuten. Dagoeneko desagertuta dagoen Filipin Folk taldeko lau kidek –Iñaki, Jorge, Victor eta Pau– eta Johnny Kinnairo irlandarrak osatzen dute taldea. Berehala konturatu ziren hartu-eman ona zutela. Folk, pop eta rock doinuak antzeman daitezke Seafóid taldearen abestietan. Ingelesez abesten dute eibartarrek. Seafóid eromena da gailekiz.



XARMA / Ondarroa

Josuah Froufe eta Christian Martin Berrizkoak dira, eta Itsaso eta Jon Kirru, Donostia eta Ondarroakoak. Jon Kirru eta Itsaso 2007an elkartu ziren eta beste biak 2008an sartu ziren taldean. 2008ko udazkenean Bilbovision lehiaketan hirugarren saria irabazi zuten. Orduz geroztik, hainbat lekutan jo dute. Amaraunak diskoa atera zuten 2009an; rock eta pop ukituko 12 abestiz osatutako lana da.



DEABRUTU / Aramaio

Muturreko bateria saioak eskaintzen ditu Deabrutu taldeak. Iñaki Urizarrek osatzen du taldea. 22 urterekin hasi zen bateria jotzen; orduetik, hainbat saioak egin ditu musika talderen bat osatzeko. Lehengo, Aramaioko lagunekin Sakre taldea sortu zuten. Gero, Bergaran egon zen beste talde batekin, baina beste hark ere ez zuen aurrera egin. Azkenik bateria bakarrik jotzea erabaki zuten.



SCAM / Aretxabaleta

Mikel Cubillok (ahotsak, gitarra) eta Imanol Ramosek (bateria) sortu zuten Scam 2004 urte bukaeran. 2005 urte hasieran Paulo Casal gitarra jotzailea sartu zen taldean eta 2006an Ander Romero baxua. 2007. urtean Musicosamateurs.com lehiaketa nazionalan, lehen saria irabazi zuten Sorprender abestiarekin. Azkeneko bi urteetan kontzertu asko eman dituzte aretxabaletarrek.

66553
...eta kitto!-ko
GABONETAKO LOTERIA

salgai duzu:

- Mujika harategia
- Urkizu prentsa
- Bolintxo
- Zabaleta okindegia
- Narria konplementuak
- San Andres gozotegia
- Askasibar kirolak
- Kultu taberna
- Valenciaga jantxidenda
- Udal Euskaltegia
- AEK Euskaltegia
- Isasi okindegia
- Izadi loradenda
- Untzaga prentsa
- Dibutec fotokopiadenda
- Zubi-Gain kafetegia
- Bankoa
- Correos
- ...eta kitto!

Loteria hartzaileen artean, abenduaren 15ean GABON-OTARRA zozketatuko da


MUGIKĀ

Urkizu, 18 — 943 120194

Egun handietako Astelena ikusteko aukera bi

PELOTAZALEAK ZORTEKO DIRA: DOMEKAKO JAIALDIARI MARTITZENEKOAK JARRAITUKO DIO-ETA ORAINGOAN.

Hasteko, lau eta erdiaren barruko txapelketetako partidu bi jokatu dira Astelengan domekan, biak ere erabakigarriak, ligaxkako azken jardunaldikoak baitira. Horrela, 2. mailakoan, Cabrerizo eta Idoate izango dira, nor baino nor, partidu nagusiari tokia egin aurretik: hor Irujo eta González gaur egungo txapeladuna izango dira finalerako txartelaren bila. Jaialdia amaitzeko, Olazabal-Cecilio eta Ongay-Merino bikoteen artekoa jokatu da.



Laskurainek Irujoren bizkarra zainduko du 30ean.

San Andres egunean, bestalde, jaialdi bikaina antolatu du Aspek eta Martínez de Irujo eta Laskurain, alde batetik, eta Titín III.a eta Barriola, bestetik, izango dira partidu nagusiko bikoteak. Hori gutxi balitz, hasteko Apezetxea-Ladis Galarza eta Gorka-Merino II.a izango dira, zeinek irabazi; amaitzeko, bestalde, Olazabal-Larrinaga eta Ongay-Arruti bikoteek jardungo dute. Jaialdirako sarrerak jasotzeko aukera izango da egun berean Astelengan zabalduko den leihatilan: eguerdiko 12.30etatik 13.30-era arte eta 15.30etatik aurrera. Erreserbak egiteko: 661 259 009 zenbakian (Olaya).


Arratek ez daki Rédeiek Iruñean jokatu duen bihar

NEURKETA GARRANTZITSUA BIHAR IRUÑEAKO UNIBERTSITARIOAN ARRATEK JOKATU BEHARREKOA. Arratsaldeko

18.30etan hasiko da norgehiagoka eta eibartarrek zaila izango dute azken jardunaldian Ipuruan Gualajararekin galdu zuten puntua berreskuratzea. Iruñearrek buelta eman diote denboraldiko hasiera kaxkarrari eta gero eta hobeto dihardute jokatzen. Horrez gain, Ipuruako azken neurketaren amaieran Rédeiek epaileekin izandako liskarrak ondorioak izan ditzake eta eibartarrek beldur dira jokalaria zigortuko ote duten.



Foball-zaletuak oporrak hartzen ditu



SAN ANDRESETAKO ETA HURRENGO ASTEBURUETAKO ZUBIAK DIRELA-ETA, foball-zaletuen txapelketak atsedena hartuko du abenduaren 11ra arte. Azken ligako irabazlea da orain ere liderra, 20 punturekin; JoserAuto Sport-ek puntu bakarreko aldea kentzen dio Durangori, hiru Tecnografik eta Bar Lanús EzDok taldeei, bost Esmorga Carpe Diem-i eta sei Azkena Kalton-i. Hamar punturekin daude Txoko eta Alkideba, zortzi dituzte Tankemanssek eta Living Cafek, zazpi Bar Aretok eta C. Dental Ekodenek eta atzean geratu dira Somos Sporting (4 puntu) eta Bar Caserío XOK (2).

Tiro olinpikoko San Andres torneo Unibertsitate Laboralean

HEZKUNTZA ESPARRUAN JOKATUKO DA BESTE BEHIN TIRO OLINPIKOKO SAN ANDRES TORNEOAREN edizio berri bat. Dinbi-Danbak antolatutako lehiaketa bihar goizean jokatuko da, 11.00etan hasita, eta hiru mailatan banatuko da: infantil, jubenil eta senior. Interesatuak izena eman dezakete bertan, bihar goizean.



Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan

Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

NTRA. SRA. DE BEGOÑA

EHORZKETA-BEILATOKIA

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA:
Txaltxa-Zelai, 4-6 - behea, ezk.

ZERBITZU IRAUNKORRA:
☎ 943 201095 FAX: 943 202564

CATALANA OCCIDENTE Aseguruak

Emilio de los Toyos - C046815351532K Aseguru Agentea

- ERANTZUKIZUN ZIBILA
- AUTOAK
- BIZITZA ETA JUBILAZIOA
- OSASUN ASEGURUA
- ISTRIPU BANAKAKO ETA KOLEKTIBOAK
- ARRISKU ANITZETARAKO: Familia-Etxebizitza, Dendak, Bulegoak, Eraikinak, Jabeen erkidegoak, Enpresa Txikiak eta Bertainak, Pymeak, Tailerrak.

emilio.toyos@catalanaoccidente.com

Eibarko Txikito, 8 -behea Tel. 943 200 908

BEZerO GUZtiE_NdaKO San AndRes ZORiontsuak!



ESPEZIALITATEAK Egunero goizeko
Gosariak 07.00etan
Plater konbinatuak zabaltzen dugu

☎ 943 20 24 01

Julian Etxebarria, 18 Beste urtebete zuekin!
 astelehenetik barixakura, 10.30ETATIK AURRERA
 zapatu eta domeketan 11.30ETATIK AURRERA

ondo pasa Sanandresak!
Tas-Tas

kafe antzokia



Pintxoak *Disfrutatzera*
Hanburgesak **Razioak**
Konbinatuak **Sandwichak**
Bokatak



**KAFEETAN
ETA PINTXOETAN
ESPEZIALIZATVA**

Toribio Etxebarria, 21
 Tel. 943 20 70 07
20600 EIBAR



**VIVALDI
PUB**

Eibarren
 San Juan, 9

SAN ANDRES JAI ZORIONTSUAK



UNBE TABERNA
 * Pintxoak
 * Bokatak
 * Bazkariak

Tel: 943 20 00 81
EGUNEROKO MENUA

GURE LEKU

Isasi, 3
 20600 EIBAR ☎ 943 20 71 89



**CHALCHA
JATETXEA**

Menu bereziak
 banketeak
 despedidak...

JAI ZORIONTSUAK
ISASI, 7 TEL: 943 20 11 26



☎ 943 20 61 43

**ALDATZ
taberna**

*Martxa nahi baduzu... Zatoz!
Zure zain gaude*

San Juan, 3

Taberna - Snack
POZKARI

Pintxo beroetan eta hotzetan espezialistak

J. Etxebarria, 11
EIBAR ☎ 943 70 20 37



Gimnasia erritmikako egun handia bihar Ipurua kiroldegian

HAMAIKA URTE DIRA DAGOENEO GIMNASIA ERRITMIKAKO SAN ANDRES TORNEOA MARTXAN ipini zutela. Gero eta arrakasta handiagoa du torneoak, batez ere orain dela lau urte nazioartekoa bihurtu zenetik. Bihar ere egun osoan ariketa bikainak eskainiko dizkigute bai Ipurua taldekoek eta baita estatu osotik eta kanpotik etorriko diren hogeitaldetik gorako ordezkariak ere: berrehundik gora gimnasta, berrogei bat entrenatzaile, ehundaka ikusle eta jarraitzaile. Lan nekeza eskatzen du guzti horrek, baina *"Eibarko Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia, El Corte Inglés, Alzola Urak, Kaiku eta hainbat eta hainbat dendei esker"* jardunaldi arrakastatsua izango da biharkoa ere.

Eski irteerak zehaztu dituzte Deportibokoek

LAU IZANGO DIRA KLUB DEPORTIBOKO ESKI BATZORDEKOEK AURTEN ANTOLATUKO DITUZTEN IRTEERAK: bi urtarrean (8/9 eta 22/23 asteburuak), bat otsailean (12/13ko asteburuan) eta azkena martxoan (hau ere 12/13an). Lehenengo irteerarako izena eman daiteke dagoeneko eta komeni da Gabon aurretik apuntatzea. Txango guztietan helduak eta umeak auto-


bus berean joango dira; hori bai, ostatu hartzeko orduan banatu egingo dira (helduak Canfranc-eko Hotel Villa Anayeten geratuko dira eta umeak Villanuako Tritón aterpetxean). Prezioak iazkoen antzerakoak izango dira. Bai txangoetan izena emateko eta baita federatu txartelak egiteko ere, bulego egunak eta orduak honakoak dira: martitzen eta eguenak, 19.30-etatik 20.30etara.



Lehen postua jokoan Eibar-Alavés norgehiagokan (ETB1)

LOGROÑON PARTIDUA GALDU ETA GERO, JAVIER MANDIOLAREN MUTILEK NEURKETAREKIN BATERA sailkapeneko lehen postua ere galdu zuten eta orain dute aukera postu hori berreskuratzeko. Alavés lider moduan aurkeztuko da Ipuruan bihar 16.00etan hasiko den partidura eta gaur egungo puntu bakarreko aldeari eusteko asmoz zelairatuko dira gasteiztarrak. Eibarrek helegiteak jarri dizkie domekan Lombrañak eta Altunak jasotako zigorrei eta, bietako batek behintzat, bihar jokatu ahal izango duen itxaropena dute.

Partiduaren inguruko giroa berotzeko, Eskozia la Bravakoek hainbat ekitaldi antolatu dituzte, tartean O'Jais tabernan salgai egongo diren ticket-ak. Bost euro ordainduta, txistorra ogitartekoa eta kontsumizio bi har- tu ahal izango dituzte zaletuek 14.00ak arte. Bestalde, partidu hasieran minutuko isilunea gordeko da aste honetan hil den Luis Mari Betoñoren ome- nez (Eibarko zuzendaritzako partaide izan zen hainbat urtez).



Altuna eta Lombraña entrenamendu batean.




Bederatzi eta denak dominekin

GRIPEAK JOTA, IZENA EMAN ZUTEN KALAMUAKO HOGEI ORDEZKARITIK bederatzi bakarrik aurkeztu ziren Durangoko Landako kiroldegian aurreko zapatuan jokatu zen nazioarteko 2. judo torneoan. Euskal Herriko judokekin batera, Errioxa, Palentzia eta Frantziako kirolariak tatami gainean, aurrebenjamin, benjamin, alebin eta infantil mailakoak. Manu Agirrerekin joan ziren bederatzi eibartarrek domina eskuratu zuten (250 judoken artean); Asier Sebastianen kasuan, gainera, bi baten orde. Guztira, urrezko hiru eta zilarrezko eta brontzezko launa eskuratu zituzten Eibartik joandakoek. Hori da, hori, herriko pabilioia goi-goian lagatzea!

Urbaten garaipena Orbeako debutean

OPEN LIGAKO BIGARREN JARDUNALDIAN, URBAT-URKOTRONIK WATERPOLO TALDEAK 18-2 irabazi zion Gasteizko Lautada B-ri. Mikel Basterririk eta Jurgi Solagaiztuak launa gol lortu zituzten eta, eurekin batera (jaz jubenil mailan zeuden), Unzeta eta Mitxelena beteranoak nabarmendu ziren, Mikel Dacosta atezainarekin batera. Bihar, 14.30etan, Ses-tao indartsua hartuko dute Orbea kiroldegian.



Hiru bikote San Andres aizkolarien torneoan

URTEROKOARI JARRAITUZ, AIZKOLARIEN ARTEKO SAN ANDRES TORNEOAREN EDIZIO BERRIA jokatuko da astelehenan, San Andres bezperan, Untzaga plazan. Jaialdia 18.00etan hasiko da eta hiru bikote ahaleginduko dira neurri ezberdineko zortzina korte egiten txanda librean. Bikoteak Zubizarreta-Agite, Zelai-Goizeder Beltza eta Bihurri-Leiza izango dira, lanari lehenbailehen amaiera emateko lehiatuko direnak. Aukera polita norgehiagoka parekatsua ikusteko.

Rugbilariak nagusi Baztanen (24-31)

EIBAR HIERROS ANETXEK HELBURU DUEN IGOERAKO PLAY-OFF-A JOKATZEA gertuago du azken jardunaldian Baztan taldearen zelaian lortutako garaipenaren ondoren. Irabazteaz aparte, bonus puntua ere eskuratu zuten eibartarrek, lau entsegu lortu ondoren. Isasaren mutilak partiduan nagusi izan baziren ere, akats batzuk tarteko, bost minuturen faltan markagailuak 24nako berdinketa erakusten zuen. Anetxeren aldetik, entseguak Borja Malabek birritan eta Diego Suárezek eta Unax Blancok lortu zituzten.

Badatorrela! Sanandresetako

jaialdi itzela!

ERRESERBAK:
661 259 009 (Olaya)

TXARTEL LEHIATILAN
egun berean: **12.30/13.30**
eta **15.30**etatik aurrera

Azaroak 30
A S T E L E N A
Apezetxea / Ladis Galarza
Gorka / Merino II.a
Mtz. de Irujo / Laskurain
Titin III.a / Barriola
Olazabal / Larrinaga
Ongay / Arruti

aspepelota.com

Iñaki Fernandez Iturmendik irabazi du aurtengo San Andres kartel lehiaketa. Napar honek 90ko hamarkadan hasi zen lehiaketetara hauetara aurkezten eta dagoeneko 200dik gora irabazi ditu. Estatu osoko lehiaketetara aurkezten da, eta aurten 29 irabazi ditu dagoeneko.

IÑAKI FERNÁNDEZ,
kartel egilea:

“Kartela oihu bat da horman, jendea mugitzeko”

- *Hainbat kartel daukazu ordenagailuaren bitartez eginak. Zaila izan zen zuretzat Photoshop eta beste diseinu programa batzuk erabiltzen ikastea? Non ikasi zenuen?*

Orain kartel guztiak ordenagailuz egiten ditut. Hasi brotxekin hasi nintzen margotzen, gero “collage” delakoak, aero-grafoarekin ere lan egin dut, baina orain ordenagailua nahitaezkoa da. Hasieran ez nuen gustuko ordenagailuekin lan egitea, gainera ikasteko aukerarik ez nuen inoiz izan, baina bizitzak buelta ematen du batzuetan eta tresna horiekin lan egiten ikasi nuen. Autodidakta naiz, baina Windows eta Photoshop oinarritzko ikastaro batzuk egin nituen eta hortik aurrera nik ikasi dut dena.


- *Zein da zuretzat kartel lehiaketarik garrantzitsuenak?*

Niretzat San Ferminetakoa noski, mendizale batentzat Everest da igo beharreko mendia eta niretzat San Ferminetako lehiaketa da irabazi beharreko lehiaketa. Gainera ez dut hori inoiz irabazi.

- *Zer da zuretzat kartel bat?*

Oihu bat horman da kartela. Kaletik zabiltzanean ikusi eta gelditzera behartuko zaituen iragarkia. Nire kartelak jendea mugiaraztea dute helburu.

- *Ezagutzen dituzu Eibarko San Andres jaiak?*



Ez, ea aurten joan naitekeen (barre artean). Saria hartzera joango naiz (30an).

- *Kartelik baduzu esku artean?*

Harrapatzen dudan guztietan nabil, laster hasiko dira aratosteak eta haietan pentsatzen nabil, baina Iruñeako arekin ez naiz hasi oraindik.

- *Nolako maila ikusten duzu kartel egileen artean?*



Denetarik dago, baina egia esan ez daukat denbora askorik besteen lanak ikuskatzeko. Hala ere, noizbait ikusi izan ditut eta harrিতa gelditu izan naiz, edonork irabazi zezake-elako; beraz, orokorrean, lehiakortasuna handia da.

- *Noiz hasi zinen margotzen?*

90ko hamarkadan hasi nintzen eta hurrengo urtean irabazi nuen lehenengo lehiaketa. Nire lehenengo kartelak brotxa, tenpera eta arkatzarekin egiten nituen. Orain ordenagailuak erraminta horiek guztiak ditu programa bakar batean eta asko errazten dit lana horrek.

- *Zenbat denbora ematen duzu kartel hau modukoa egiteko?*


Kartela egitea ez da zaila, zaila da ideia izatea. Ideiaren arabera, kartelak denbora gehiago edo gutxiago behar du amaitutzat jotzeko.



Exfibar erakusketa domekan zabalduko da

ARRATE FILATELIA ELKARTEAK ANTOLOTZEN DUEN EXFIBAR SEILU ERAKUSKETA 41. EDIZIOA BETEKO DU aurten eta Usartza Txistulari Banda aukeratu dute gai nagusitzat, bere sorreraren 75. urteurrenaren aitzakiarekin. Hori dela eta, domekan 12.00etan Portalean zabalduko den erakusketan txistularien figurarekin lotutako 11 bilduma

ikusteko aukera izango da. Gainera, Juan Angel Lópezek txistulariei eskainitako zigilumarkatzekoa erabiliko dute. Erakusketa honek ordutegi berezia izango du: zapatu eta domeketan 12.00etatik 14.00etara eta 18.00etatik 20.00etara egongo da zabalik eta astelehenetik barixakura 18.00etatik 20.00etara (San Andres egunean itxia).



Dantza garaikidea Santamaría-ren eskutik

GAUR 20.30-ETATIK AURREA JUAN CARLOS SANTAMARÍA K ZUZENDUTAKO “AIRE DE CORTE” dantza ikuskizuna hartuko du Coliseoak. Aida Badía, Elena Salazar, Marilú Campo, Eva Nazaret, Denis Bruno, Cristian Martín

Cano, José Carlos Cicera eta Christian Alessandria dantzari koreografia garaikide bik osatutako ikuskizuna eskainiko dute eta sarrerak (7 euro) leihatilan bertan erosteko aukera izango da, emanaldia hasi baino ordu bete lehenagotik hasita.



Asier Errastiko irabazleak, euren sariekin. / MAIALEN BELAUSTEGI

Laburmetraia onenei saria


ZAPATUAN, XI. EIBARKO ASIER ERRASTI LABURMETRAIA JAIALDIAREN AMAIERARAKO EKITALDIAN eman zituzten ezagutzera aurtengo irabazlearen izenak: eibartar onenari saria Aitor Guerrerok eskuratu du, "Ojos que no ven" lanarekin. Hala ere, epaimahaiak "ex aequo" saritu nahi izan dute Malen Ulaziaren "Zorion hutsa"; sorkuntza atalean, saria Enrique Garcíak eta Rubén Salazarrek (Gasteiz) aurkeztutako

"Daisy Cutter" lanarentzat izan da; euskaraz lehiatu direnen artean, Asier Altuna donostiarraren "Artalde" nagusitu da; eta gaztelaniazkoen artean, berriz, lehenengo saria Zacarias & McGregor (Madril) taldearen "Uyuni" laburmetraiak jaso du eta bigarrena Plentziako Tucker Dávila Wood-en "Los 4 Mcnifikos" lanarentzat izan da. Plano Corto elkarteak antolatutako lehiaketan ia 300 lan lehiatu dira aurten.

Hiru txerrikumeak bihar Coliseoan

KUBAKO TEATRO PAPALETE TALDEAK "TRES SOMOS TRES" ANTZEZLANA ESKAINIKO DU ZAPATUAN, 17.00etan Coliseoan (sarrera 4 euro). Emanaldia Titirijai XXVI. Nazioarteko Jaialdiaren barruan antolatu da eta familia osoarentzat pentsatutako antzezlana ipuin klasikoaren egokitzapena da. Kubako taldeak estilo berezi-bere-

zia darabil taula gainean eta teknika anitzez baliatuko dira aktoreak, tartean txotxongiloak erabilita. Titirijai 2010 jaialdiaren inguruan beste bi lan eskainiko dira: eguaztenean "Guyi, Guyi" (Murtziako Periferia Teatro taldearen eskutik) eta eguenean "Line(s) de horizonte" (Theatre du Lutin, Frantzia), 15.00etan Hezkuntza Esparruan.



San Andres bertso jaialdia gaur gauean

GAUR 22.00-ETAN ...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEAK ANTOLATUTAKO SAN ANDRES BERTSO JAIALDIA HARTUKO DU Portaleko areto nagusiak. Julen Zelaia, Ane Labaka, Julen Sololuze, Jokin Labaien, Eneritz Zabaleta eta Ainhoa Agirreazaldegui bertsolariak saioa hasi aurretik aurtengo San Andres bertso paper lehiaketako irabazleei sariak banatuko zaizkie eta saritutako bertsoak abestuko dituzte. LH mailan lehenengo saria Mikel Rodríguezentzat izan da eta bigarrena Irati Larruskaintzat (biak J.A. Mogel ikastolako ikasleak). 16 urtetik gorakoen mailan, lehenengo saria Aitor Albistur oreretarrak eraman du eta bigarrena Jesús Mari Gisasola "Trunboi" eibartararentzat izan da. Sarrerak 5 euro balio du.

sanandres jai zoriontsuak!

aldatze

www.aldatze.org

laburrak

SOSTOA-REN ZOZKETA

Zapatuan Santa Zezilia ospatu zela eta, Sostoa abesbatzak otarra zozketatu zuen eta, abesbatzatik azaldu digutenez, saria hori koloreko txarteletan 2.598 zenbakia duenak eramango du. Irabazleak 636906921 telefono zenbakira deitu beharko du saria nola eta noiz jaso dezakeen zehazteko.

TRIKITILARI GAZTEEN FINALA

Domekan Zaldibarren jokatu den Trikitilari Gazteen Txapelketako finalean Jone Uria eibartarrak jardungo du. Olazar frontoian jokatu da txapelketa, 17.30etatik aurrera.

ELGOIBARKO MUSIKA BANDA

Domekan Elgoibarko Musika Bandakoak etorriko zaizkigu, urteroko moduan: 11.00etatik aurrera kalejiran ibiliko dira eta 12.30etan, beriz, kontzertua eskainiko dute Coliseoan.

IKASTOLAKO BAZKARIA

Abenduaren 18an Juan Antonio Mogel ikastolako bazkaria egingo da Armeria Eskolan, 14.30etatik aurrera. Joan nahi duenak 30 euro sartu beharko ditu, izen-abizenak ematea ahaztu barik, Euskadiko Kutxako 3035 0023 94 023 1142214 kontuan. Izena emateko azken eguna abenduak 3 izango da.

Eibar, Julen Zabaletaren lumak marraztuta

EGO IBARRA BATZORDEAK ARGITARA EMAN DUEN "EIBAR, TINTAZ ETA LUMAZ" JULEN ZABALETAREN MARRAZKIETAKO ASKO batzen dituen liburuaren aurkezpena datorren astean, egunean izango da Portalean, 19.30-etatik aurrera. Aurkezpen ekitaldian, besteak beste, Carmelo Urdangarín ikerlariak eta José Antonio Azpiazu historialariak jardungo dute, marraz-



kien egilearekin batera, Silbia Hernández kazetariak gidatuko duen solasaldian. Zabaletak Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako eraikin garrantzitsuenekin 4.000tik gora marrazki egin ditu eta liburuan 100 bat jaso dituzte, horietako asko eta asko gure herriko eraikinei eskainitakoak. Aurkezpen egunean liburuaren prezio berezian (6 euro) erosteko aukera izango da.

Aho zurien kontzertua

ZAPATU ARRATSALDEAN, 19.00ETATIK AURRERA SAN ANDRES ELIZAN OSPATUKO DEN MEZAN XIXONEKO EMAKUMEEN ABESBATZAK abesten jardungo du eta meza-aren amaieran kontzertua eskainiko du, Mari Carmen Palacios zuzendariak gidatuta. Goruntz abesbatzak egindako gonbidapenari erantzunez ailegatuko dira Xixongo abesbatzako kideak. Eibartarrek datorren urtean Xixonen abestuta bueltatuko diete asteburu honetako bisita. Horrez gain, eta urteroko moduan, Goruntz abesba-



tzak domekan ospatuko den Makillauaren Kofradixaren 17. kapituluaren ere abestuko du, ohorezko kofradeak izendatze-

ko ekitaldian. Izan ere, Goruntz abesbatzak aipatutako kofradiako ohorezko izendapena jaso zuen orain dela urte batzuk.

C.V. taldearen kontzertua Bost-en

GAUR ILUNTZEAN, 20.00AK ALDERA HASIKO DA C.V. TALDEAREN KONZERTUA BOST TABERNAN. 1985ean jaiotako taldeak "Rock & Blues" izenburuko diskoa kaleratu zuen 1996. urtearen amaieran, taldeak sortutako abestiekin osatutako lana. Handik pare bat urtera bigarren diskoa eman zuten argitara "tarDe perO Seguro". Taldeak jotzeari laga zion ondo-

ren, baina iaz Koxka elgoibartarrekin batera kontzertua eskaintzeko jaso zuten proposamenarekin animatuta, taldearen sorreraren 25. urteurrenaren inguruan hainbat kontzertu eskaintzen dihardute aurten. Taldeko gaur eguneko kideak Fernando Machín, Oscar Martínez-Toledano, Aitor Irisarri eta Oscar Sola dira; gaurkoa ere bereziki prestatutakoa da.

Zezenbide, 4
943 53 00 66
www.lakett.com

Lakett
ESTETIKA MASAJEA

ESTETIKA
MASAJEA

ORDUTEGI JARRAITUA: 09.00-19.00. ZAPATUETAN: 09.00-13.00

Jai zorientsuak!
FOTODEPILAZIOAN
%10eko deskontua

Etorri zaitzete hankak eta izterondoak egitera: besapeak doan

AMIGUEN OSORRO SOS
Fotografiak

ZERGATIK DA HAIN ZAILA GURASO IZATEA?

Non: San Agustin, 2-4 Bis - D lokala
Norentzat: 13-17 urteen arteko nerabezeroen gurasoentzat
Hasiera: Abenduak 18
Amaiera: Maiatzak 14
Iraupena: Ordu eta erdiko 6 saio zapatu goizetan
-SAIO BATZUK EGITEKO AUKERA-

informazioa: 943 53 04 86

BEZeRo GUZtiE_NdaKO San AndRes ZOriontsuak!

943 20 67 65
Bista Eder, 11

Oishi
su beroa
jatetxea

Eguneko menuak
Bokatak
Razioak
Menu bereziak

ESKARNE 

JATETXEA

- eguerdiko menua
- menu bereziak

Arragueta, 4 Tel. 943 12 16 50 20600 **EIBAR**

OLSHI
PINTXO BEREZIAK

CATERING 

943 20 29 55
627 41 78 33
Untzaga plaza

K-O-X

Sanandres zorientsuak

etxolajatetxea@hotmail.com
Erreserbak: 943-207019
Txirio kale, 1

etxola
JATETXEA

Eguneko menua / Karta / Pintxoak
Enpresa eta taldeentzako aurrekontuak

TXOKO
TXOKO

Giro alaiak Sanandresetan!

UNTZAGA PLAZA, 10
20600 EIBAR

BAMETSA
R

Toribio Etxebarria, 4

EZ
DOK

TABERNA
PIZZERIA
BOKATERIA

BOSSA

Ego gain z/g
(Arrate hotelaren alboan)
943 20 67 53

Onda pasau!

xok

KATU 

KALE
TABERNA

BIDEBARRIETA, 1

Zelan ikusten dozu animalixak garraio publikuan eruatia?





ANDER AZPIAZU
23 urte
irakaslia

Ondo dago animalixak garraio publikuan eruan ahal izatia. Jabiak animalixa bihar dan moduan eruaten badau, lotuta, biharrezkuak diran segurtasun neurriak hartuta... eta ez badau molestazten, ez dot arazorik ikusten. Kontrolpian egon bihar da animalixa; hori betetzen bada, ondo.

OIHANA COBO
32 urte
etxekoandria

Ondo ikusten dot animalixak garraio publikuan eruan ahal izatia. Txakurra dakat eta jabiok euren kargu egin behar dogula uste dot, bihar dan moduan lotuta eta hezituta, iñori kalte edo miñik ez emoteko. Animalixak nola eruan arautzia ez dot txarto ikusten; beti be, zentzunez jokatzan bada.




JOSE MANUEL ELGEZUA
62 urte
jubilaua

Ondo begittantzen jata garraio publikuan animalixekin jua ahal izatia. Oñ arautzia nahi dabe, baiña ez dot ondo ikusten. Animalixaz arduratu bihar dana jabia da; beti kontrolpian eta iñori kalterik ez egitteko moduan eruan bihar dira.

MARI CELE CAÑAVERAS
45 urte
langabezixan

Ez dot txarto ikusten animalixak garraio publikuan eruatia. Ez badabe molestatzan, iñori miñ edo kalterik ez egitteko moduan eruaten badiittue eta jabia animalixaren kargu egitten bada, bihar dan moduan, ez dot arazorik ikusten animalixak garraio publikuan eruateko.



EGOITZA NAGUSIA
Bilboko Barrio 20 - behea, eskuma

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del
Bajo y Alto Deba

Tanatorio eta Errausketa labea
Egaitzen (Sistema poligonozko)
Partikular, natua eta aseguru etxeko zerbitzuak
Koroak - Ekialde - Urtumanoa ekialde
Euskal Herri osoko ospitaleetan bertan 24 ordu
Nazio eta Nazioarteko itzulgoak

Mugica
Ehorzketa

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

FAMILIA ABOKATUA
ELENA MUGUERZA ORMAECHEA

**Familiako eta ondorengotzetako
(herentziak) abokatua**

Dibortzioak

Gaitasun-etak

Ondorengotzak


Aitatasun erreklamazioak

Erregimen ekonomikoa


Juan Gisasola, 4 - 2. eskuma
691 442 424 628 537 941

laztanak emoten...

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, IZAR, zapatuan urtia beteko dozu-eta. Pa haundi bat zure famelixaren partez.




Zorionak, ARRATE, domekan hiru urte beteko dozuzelako. Famelixa guztiaren partez.




Zorionak, LOREA Legarreta, zure 8. urtebetetzian. Laztan haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, HAIZEA, astelehenian urtebete egingo dozulako. Famelixaren partez.




Zorionak, OIHAN Goitandia, abenduaren 1ian urte bi egingo dozuzelako. Etxekuen partez.



Zorionak, amaxi MAITE, domekan 90 urte egingo dozuz-eta. Segi hain gozo eta zoragarri izaten. Muxu bat etxekuen partez.



Zorionak, INTZA, martitzenian lau urte egin zenduaz-eta. Muxu asko famelixaren partez.



Zorionak, IKER (hiru urte egin zenduaz hillaen 19xan) eta NAHIA (atzo zazpi bete zenduaz). Aitaxo eta amaxoren partez.

JAOTAKOAK

- Aner Teruel Turrillo. 2010-XI-16.
- Aimar Grande Elizondo. 2010-XI-17.
- Noa Rodríguez Fernández. 2010-XI-19.
- Vera Rodríguez Fernández. 2010-XI-19.

HILDAKOAK

- Luis M^o Fdez. Betoño Arrillaga. 75 urte. 2010-XI-17.
- Dolores Albillos Martínez. 84 urte. 2010-XI-18.
- Miren Garaizabal Elkoro. 90 urte. 2010-XI-21.
- Juan Esteban Ulloa Crespo. 63 urte. 2010-XI-23.

zinea Coliseoan

26an: 22.30
27an: 17.00/19.45/22.30
28an: 17.00/19.30
29an: 20.30
30ean: 17.00/19.30

"Los seductores"

Zuzendaria: **Pascal Chaumeil**
Aktoreak: **Romain Duris, Vanessa Paradis, Julie Ferrier, François Damiens**



Alex eta bere arreba lan berezia dute: beste bikote batzuk banatzea. Izugarriko arrakasta dute, baina euren lanean dituzten bi arau nagusiak apurtuko dituzte, gizon batek bere alabaren bikotea apurtzeko kontratatzen dituztenean...

26an: 22.30
27an: 17.00/19.45/22.30
28an: 17.00/19.30
29an: 20.30
30ean: 17.00/19.30

"Skyline"

Zuzendaria: **Strause anaia**
Aktoreak: **Eric Balfour, Scottie Thompson, David Zayas, Donald Faison**



Stephen Hawking-ek esan du: "Lurretik kanpo badago bizitzarik eta etorri gero, beldurtu egin beharko ginateke". Lagun talde bat jai batetik etorri berri hasiko da extralurtarren inbasioa. Lurra desagertzen doanean, euren bizitza salbatu beharko dute...

26an: 22.30
27an: 22.30
28an: 19.30
29an: 20.30
30ean: 19.30

"Jackass" 3D

Zuzendaria: **Jeff Tremaine**
Aktoreak: **Johnny, Ryan Dunn, Steve-O, Pontius**



Telebistan eta zineman ikusi diren txorakeria handienak egin dituzte urteetan Jackass-eko protagonistek. Oraingoan 3D sistema ezagunear egingo dituzte ohiko kirol ezin arriskuutsuagoak, txorakeriak eta abarrak...

27an: 19.45
28an: 17.00
30ean: 17.00

"La bella y la bestia" 3D

Zuzendaria: **Gary Trousdale**
Pertsonaiak: **Bella, Bestia, Gaston, Lumiere**



Frantzia; XVIII. Mendea; Bella gazte liraina da, eguna irakurtzen pasatzen du herri txiki batean. Aita gaztelu batera eraman dutela eta, bertara joan eta aitaren lekuan jarriko da. Gazteluko jabea Bestia da; bere itxura zatarraren atzetik gehiago dago...

horoskopoa

ARIES

Zeren zain zaude? Azterketak gainean daude eta badirudi ez zarala konturatu. Hasi zaitzez ikasten, beranduegi baino lehen.

TAURUS

Azken aldian gauza asko ahazten zaizkizu. Lasaitu eta egin beharreko gauzen zerrenda; bestela, arazoak izango dituzu.

GEMINI

Zure logelan sartzea gero eta zailagoa da, dena daukazu hankaz gora-eta. Hasi zaitzez txukuntzen eta arropak armairuan gordetzen.

CANCER

Beltza polita eta dotorea da, baina beti beltzez jantzita joateak itxura tristea ematen dizu. Saiatu koloredun foularrak erabiltzen.

LEO

Pausua emoten ausartu zara eta ez da gutxi. Gogorra izan bada ere, luzera begira onerako da. Denbora pasa ahala, hobeto egongo zara.

VIRGO

Horrenbeste gustatzen zaizun lagun horrekin egingo duzu topo asteburuan. Saiatu zaitzez bere telefona lortzen, ahal bada.

LIBRA

Benetan eskuzabala zara, lagun: Gabonetako opari gehienak dagoeneko erosita dituzu. Familiako ez dira kexatuko.

SCORPIUS

Ondo baino hobeto pasatzen duzu lagun berezi horrekin. Ziur al zaude lagun moduan besterik ez duzula maite? Benetan ziur?

SAGITTARIUS

Asteburua etxean goxo-goxo pasatzea nahi duzu, baina lagun batek zure beharra izango du eta irten egin beharko zara.

CAPRICORNIUS

Kalera irten baino lehenago, ispilura begiratu! Aurkitzen zara? Orraztu, zamarra ganoraz jantzi... Badirudi etxetik ihes egiten duzula!

AQUARIUS

Horrenbeste lan egin ondoren, aste honetan emaitzak ikusten hasiko zara. Egindako esfortzua merezi izan du, argi dago!

PISCIS

Zergatik lagatzen duzu dena azken momenturako? Horrek dena aldrebestu eta erabaki okerrak hartzea eramaten zaitu.

Barixakua 26

TAILERRA

17.00.- Taloak egiten ikasteko tailerra. Errota gaztelekuan.

GABONETAKO ARGIAK

19.30.- El Corte Inglés-eko fatxadako Gabonetako argiztapena piztuko dute Miguel de los Toyos alkateak, Eduardo Robredo zentruko zuzendariak eta Mariano Lorenzo zuzendariordeak. El Corte Inglés-ean.

INAUGURAZIOA

19.00.- Karrika tabernaren inaugurazioa.

KONTZERTUA

20.00.- C.V. Rock&Blues kontzertua. Fernando Machín (gitarra eta ahotsa), Oscar Martínez-Toledano (gitarra eta koroak), Aitor Irisarri (bajua, ahotsa eta harmonika) eta Oscar Sola (bateria). Bost tabernan.

DANTZA

20.30.- "Aire de corte", Santamaría dantza konpainiaren eskutik. Sarrera: 7 euro. Coliseoan.

KONTZERTUA

22.30.- Danbaka lehiaketako kontzertua: Xarma (Ondarru), Deabrutu (Aramaio), Seafoid (Eibar) eta Scam (Aretxabaleta). Elgetako Espaloia Antzokian.

Zapatua 27

MEZA ETA OMENALDIA

12.30.- Untzaga jubilatutako hildako bazkideak gogoratzeko meza. San Andres elizan. Jarraian, 85 urtetik gorako bazkideei omenaldia. Arrate hotelean.

TITIRIJAI TXOTXONGILO JAIALDIA

17.00.- "Tres somos tres" antzezlan. Sarrera: 4 euro. Coliseoan.

TAILERRA

17.00.- Taloak egiten ikasteko tailerra. Errota gaztelekuan.

KONTZERTUA

22.30.- Mezan Xixongo Emakumezkoen Abesbatzak abestuko du, Goruntz-ekoek gonbidatuta. San Andres elizan.

BERTSO-SAIOA

22.15.- Bertso-saioa, XXI. San Martin azoka kulturalaren barruan. Bertsolariak: Unai Iturriaga, Maialen Lujanbio, Igor Elortza eta Xebastian Lizaso. Gai-jartzailea: Asier Ibaibarriaga. Lobiano Jauregian (Ermuan).

Domeka 28

KALEJIRA ETA KONTZERTUA

11.00.- Elgoibarko Musika Bandaren kalejira. **12.30.-** Elgoibarko Musika Bandaren kontzertua. Coliseoan.

EXFIBAR INAUGURAZIOA

12.00.- Exfibar seilu-erakusketaren inaugurazioa eta sari-banaketa ekitaldia. Portalean (erakusketa aretoan).

TAILERRA

17.00.- Taloak egiten ikasteko tailerra. Errota gaztelekuan.

KONTZERTUA

20.00.- Mursego disko berriaren aurkezpenaren aurretiko emanaldia. Karrika tabernan.

Astelehena 29

AZOKA

12.00.- San Andres azoka. Iturburun.

KONTZERTUA

23.00.- Dî-Vj Okerreko. Musika eta irudi emanaldia. Karrika tabernan.

Eguaztena 1

TITIRIJAI TXOTXONGILO JAIALDIA

15.00.- "Guyi, Guyi" antzezlan (Periferia Teatro, Murtzia). Hezkuntza Esparruan.

HITZALDI DASTAKETA

19.30.- Makrobiotika. Hizlaria: Simone Begiristain. Sukaldaria: Oskar Trebiño. Arrate Kultur Elkartearen.

Eguena 2

IKASTEN

10.00.- "La Real Compañía Guipuzcoana de Caracas" hitzaldia, Urko Barros-en eskutik. Armeria Eskolan.

TITIRIJAI TXOTXONGILO JAIALDIA

15.00.- "Line(s) de horizonte" antzezlan (Theatre du Lutin, Frantzia). Hezkuntza Esparruan.

SENDABELARREN FOROA


16.00.- Lore-artearen inguruko solasaldia. Portalean.

ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA

19.00.- Saioa Cabañas argazkilariaren "Gauilunak" erakusketaren hasiera. Karrika tabernan.

LIBURU AURKEZPENEA

19.30.- Julen Zabalearen "Eibar, Tintaz eta Lumaz" liburuaren aurkezpena. Egilearekin batera Carmelo Urdangarín ikerlariak eta José Antonio Azpiazu historialariak jardungo dute, Silbia Hernández kazetariaren gidaritzapean. Portalean.



erakusketak

- Azaroaren 28ra arte
ESTHER GALARZAren zeramika lanen erakusketa. Durangoko Arte eta Historia Museoa.
- Azaroaren 30era arte
ARGAZKILARITZA IKASTAROAren erakusketa. Portaleko tabernan.
- CARLES VERDÚ I PRATS**en "Vietnam del Norte" argazki-erakusketa. Klub Deportiboan.
- AGRUPACIÓN FOTOGRÁFICA TALLERS D'ARTS I OFICIS DE BERGA P25**ren argazki erakusketa. Klub Deportiboan.
- HERRI KIROLN** inguruko erakusketa. El Corte Inglés-ean.
- Azaroaren 28tik abenduaren 5era arte
EXFIBAR seilu-erakusketa. Portalean.
- Abenduaren 2tik aurrera
SAIOA CABAÑAS argazkilaria "Gauilunak" erakusketa. Karrika tabernan.

ikastaroak

- **Komiki digitalaren inguruko tailerra.** Informazioa eta izen-ematea: Juan San Martin Liburutegian, abenduaren 9ra arte.

bekak

- **Elkartasun Bekak.** Eskaerak: Abenduaren 1era arte, Pegoran.

farmaziak

- 26, barixakua**
EGUNEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)
- 27, zapatua**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)
- 28, domeka**
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- 29, astelehena**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- 30, martitzena**
EGUNEZ **Las Heras** (Sostotarren, 10)
GAUEZ **Las Heras** (Sostotarren, 10)
- 1, eguaztena**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- 2, eguena**
EGUNEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- 3, barixakua**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

sarrerak salgai

DANTZA "Aire de corte":
Azaroak 26. 20.30etan.

ANTZERKIA "Tres somos tres":
Azaroak 27. 17.00etan.

MUSIKALA "Olentzero & co!:"
Abenduak 4. 17.30etan
eta 20.00etan.

telefono jakingarriak

- SOS deiak112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola901 20 20 20
- Naturgas902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.943 46 46 22
- Gurutze Gorria..943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren902 54 32 10
- Pesa902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

autobus ordutegiak

- EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.
- EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.
- EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.
- EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.
- EIBAR-ARRATE.** Egunero: 15.30. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Egunero: 16.00. Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.
- EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.
- EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.
- tren ordutegiak**
- EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.
- EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

SUDOKUA

	6		5		1			7
		1			3	8		4
			8					2
	1	5	7		9			
			3		6	5	2	
6					7			
7		8	1			9		
1			9		5		7	

DENBORAPASAK

7	1	2	5	3	9	6	4	8
3	5	6	8	1	4	9	7	2
4	9	8	7	2	6	5	1	3
8	7	5	2	4	3	1	9	6
1	2	9	6	5	8	7	3	4
6	3	4	1	9	7	8	2	5
2	4	7	9	6	5	3	8	1
5	8	3	4	7	1	2	6	9
9	6	1	3	8	2	4	5	7

AURREKOAREN EMATZA

1. Etxebizitza

1.2. Errentan

- Pisua alokagai Amañan. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Eguzkitsua. Tel. 646-484230. Aitor.
- Logela behar da konpartitzeko. Tel. 688-819475.
- Ermuan pisua alokagai. 3 logela. Igogailuarekin. Argitsua. Tel. 661-653160.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren edo Bergaran. Tel. 663-451436.
- Logela alokagai. Komun propioarekin eta sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. Berogailua. 350 euro. Tel. 605-908924.

2. Motorra

2.1. Salgai

- Honda Civic autoa salgai. 115cv. 120.000 km. Egoera onian, beti garajian. Extra guztiekin. Tel. 656-416597.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Erabilpen askotarako txoko edo lokala salgai edo alokagai Eibarko erdialdean. Berriztua, sukaldea eta komunarekin. Tel. 669-293427.

3.2. Errentan

- Asua-Errekan garajea alokagai. Tel. 678-436136.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Tel. 686-234612.
- Neska arduratsua eskaintzen da asteburuetan lan egiteko. Esperientzia. Tel. 681-322442.
- Estetizista eskaintzen da, homologoatutako tituluarekin. Esperientzia. Tel. 620-707210.
- Emakumea eskaintzen da gauzez edo arratsaldez nagusiak zaintzeko. Tel. 618-052967.
- Emakumea eskaintzen da kamarera moduan jarduteko gauzez edo arratsaldez. Tel. 696-246962.
- Neska eskaintzen da (abenduarren 20tik urtarrilaren 18ra) nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 943-531675.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Erreferentziak eta esperientzia, batez ere gauzez ospitaletan. Tel. 688-603298.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko (formakuntza bereziarekin) eta sukaldari laguntzaile moduan. Esperientzia ere nekazaritzan eta baserrian lan egiten. Tel. 662-552464.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka eta gauzez. Tel. 680-223378.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 655-384877.
- Neska eskaintzen da dendari-laguntzaile moduan edo edozein lanetarako. Tel. 648-190651.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 662-252150.
- Geriatria laguntzailea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Prezio onean. Tel. 695-898349.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 692-691964.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Neska eskaintzen da arratsaldetan eta asteburuetan umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 676-035738.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Tel. 608-147559.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Tel. 648-603029.
- Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 943-127400 edo 629-889465. Miren.
- Neska eskaintzen da 10.00etatik 17.00etara nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. Tel. 679-910991.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 678-972690.
- Neska eskaintzen da lan egiteko arratsaldetan eta asteburuetan. Tel. 636-383471.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 689-617818.
- Edozein motatako leihoak eta pertsiak konpontzen dira. Tel. 670-428966.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 634-190979.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Esperientzia. Tel. 635-187901.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 669-068439.

4.2. Langile bila

- Estetizista behar da Elgoibarko estetika zentro baterako. Tel. 943-531636.
- Kamarera behar da asteburuetarako Eibarko taberna batean. Euskeraz badaki hobeto. Esperientziarekin. Tel. 669-977225.
- Kamarera/o behar da egun erdiz Eibarren. Euskeraz dakiena. Tel. 943-207044.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- Magisteritza eta Pedagogia tituludunak LH eta DBHko klase partikularrik ematen ditu, ikaslearen etxera joateko aukerarekin. Tel. 606-257620.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Jaio-berriarentzat karroa salgai. Arrue markakoa. Ia berria eta oso egoera onean. 180 euro. Tel. 609-737591.
- Border collie-ren txakurkumeak (arrak) salgai. Urriaren 9an jaiotakoak. Tel. 630-030144.
- PSP kotsola morea salgai. Berria. Osagarriak eta ordenagailurako hiru joko opari. 120 euro. Tel. 606-921127.
- Lur saila salgai. 21.000 m²: 15.000 Maxpen eta 6.000 Kalamuan. 60.000 euro. Negoziagarriak. Tel. 965-876118 edo 649-445104.
- Ibiltzeko zinta salgai. Tolesgarria eta indikadore elektronikoarekin. Egoera onean. 40 euro. Tel. 670-772928. Mikel.
- Ardanegi edo "vinoteca" berria salgai. Zozketan egokitutakoa. Erabili barik. 32 botilarentzako lekuarekin. Tel. 672-428273.
- Lababoa salgai, armairua eta ispi-luarekin. Baita bainuontzi txiki baten manpara. Tel. 628-699910.
- Sofaohea salgai. Egoera onean. Gutxi erabilia. 150 euro. Tel. 620-559606.
- Ordenagailuarentzako egurrezko mahaia salgai, erroberekin eta CPU sartzeko lekuarekin. Tel. 665-749027.

6.2. Eman

- Kotxe-kapota handia oparitzen da, panpinekin. Tel. 943-201367.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Hilaren 15ean eguzkitarako be-taurrekoak aurkitu nituen Erreka-txun. Tel. 690-311429. Pilar.

AURPEGI TRATAMENDUAK

Berehalako eragina duen

GAZTETZE TRATAMENDUA



Mikropigmentazioa
Betileen luzapena / Gel azazkalak
Iraupen luzeko manikura eta pedikura

CAPI

Bidebarrieta, 5

Tel. 943 201 547

Laser fotodepilazioa

ezpainak	10 €
besapeak	50 €
izterrondoak + besapeak	100 €
erdiak	120 €
erdiak + izterrondoak	160 €
osoak	200 €
osoak + izterrondoak	250 €
besoak	120 €
bizkarra	120 €

3x2

- OSTEOPATIA (burezurrekoa, estrukturala, erraietakoa)
- KIROMASAJEA
- TEKNIKA METAMORFIKOAK
- MASAJE TERAPEUTIKOA
- REFLEXOLOGIA (ordubete)

Masajeak

Tratamendu lipo-erreduktorea

5 saioekin

30 minutuko masajea edo erreflexologia OPARI

BEGIBISTAKO
EMAITZEKIN
LEHENENGO
SAIOTIK

BERRIA

5 saio

150 euro


30 euro

saio bat

09.00-13.00 / 14.30-20.00 Zapatuetan: 09.00-13.00

5 eguneko Teorikako ikastaro trinkoak

ZEZEN BIDE




AUTO ESKOLA

ORDUTEGIA:
09.30-13.00
15.30-20.30

GIDA-BAIMENAK


San Andres, 1 ac
Tel. 943 20 34 45
EIBAR



IZANE

dekorazioa

TORIBIO ETXEBARRIA, 17
Telf: 943 203868



%10eko

IZANE

deskontua
GABONETAKO
ARTIKULUETAN

DIRDAI


bitxitegia

Toribio Etxebarria, 21
Tel. 943 20 75 33

Altzairu eta zilarrezko pultserak diamanteekin
Bernat Rubí 150€



Finantziazio
formulak
galdetu



GUESS

CPS sport

Tondanco

CUSTO

TW STEEL

ARMAND BASI

Marc Ecko

ALFEX

D&G